ataria

# Uhinetan ofizioz, literaturan afizioz

**Inauteriak**
*Kabi Alai txarangak 75 urteak ospatzeko hamabi abestidun diskoa kaleratu du*

**Euskara**
*Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosako neguko merkealdiko paisaia linguistikoa aztertu du*

2017-02-10
630. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

BINAI
ODONTOLOGIA ZENTROA

**Irun**
Jose Eguino, 2 · 1 A
**943 612 831**

**Tolosa**
Arostegieta, 6 BIS · 1
**943 672 999**

**www.clinicabinai.com**

## Zure hortzen osasuna eskurik onenean

- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Hortzetako estetika
- ✓ Protesien laborategia
- ✓ PADI-Osakidetza

# Maitasun aitorpena

Donostiako Nazioarteko Lehen Komiki eta Manga Jaialdia» ospatu da Kursaalen joan den asteburu honetan, COMIK-D izenpean. Komikiak, erakusketak, hitzaldiak, mahai-inguruak...eta beste hainbat jarduera izan dira hiru egunez jaialdiaren esparruan. Eta honen biharamunak irentsi duen egutegiko lerrotik, maitasun aitorpen bat dakarkizuet gaur: Komikiekiko, euren aberastasunarekiko, dudan maitasunaren aitorpena. Umeentzako irakurketa bezala sailkatzen direlako. Edo frikientzako. Baina askoz irakurketa konplexuagoa eskaintzen dute. Eta ni, euren orrialdeetan umeen txundiduraz kulunkatzen naiz.

*X-Taldearen* istorioek txunditzen naute. Charles Xavier irakaslearen ardurapean, mutante gazte batzuek bizi dituzten abenturen kontakizunak dira hauek. Baina baita 60ko hamarkadaren isla ere. X-Taldearen lehenengo alea Martin Luther King Jr. doktoreak egindako *Amets bat dut* hitzaldiaren ostean argitaratu zen Estatu Batuetan. Eta garai horretako aldaketa sozialen alegoria bihurtu zituen Stan Leek mutanteak: LGTB kolektiboaren, emakumeen, afroamerikarren alegoria. Malcom X aktibistaren ideologia Magnetok azalduko zien irakurleei, eta Martin Luther Kingena berriz Xavierrek.

Grant Morrisonek idatzitako *Flex Mentallo* izugarri gustuko dut. Bere itsura hutsalaren azpian nihilismoaren aurkako aldarrikapena ezkutatzen baita. Flex Mentalloren pertsonaia Charles Atlas kulturistan oinarrituta dago, zeinak 1940ko hamarkadan jazarpenen aurkako komiki bineta ugari kaleratu zituen. Heroi honen eskutik gure istorioen amaiera alda dezakegula ikasi dut, kaosa eboluzioa dela eta absolutua, ustela.

**OLATZ GODOY**
ATARIA IRRATIA 107.6

**Askoz irakurketa konplexuagoa eskaintzen dute. Eta ni euren orrialdeetan umeen txundiduraz kulunkatzen naiz**

Zientzia-fikziozko eleberriak maite ditudalako maite dut *Jodorowsky* eta *Moebiusen Incal*. Gizarte distopikoen eleberriak maitatzeagatik Alan Mooren *V for Vendetta* maite dudan bezala. Ezin ahaztu *MAUS* edo *Persepolis*en irakurketek sabelaldean sortu zidaten korapiloa. Mandelbaumen gerrikoa lortzean isuritako malkoa edota Marjaneren marrazketa klaseetako eromena. Bertako altxorrek ere zoratzen naute. Redondo eta Harrieten Sorginaren Marka edo Jon eta Mirka. Gogoan dut zenbat ikasi nuen Euskal Herriaz Gabai irakurtzen. Paco Rocaren *Zimurrak* hunkitzen nau. *Asterix* eta *Tintin*ekin bidaiatu egin nuen. Baita Ulli Listekin ere, *Gaur zure gainerako bizitzaren azken eguna* da eskuartean nuela. Chernobilen gertatutakoa ezagutu Bustos eta Sanchezen eskutik. Pyongyang bisitatu Delisleren eskutik. *Nemo Txikia*rekin amestu. Manga ere maite dut: *Death Note, Slayers*... Eta komikietako pertsonaiak ditut bereziki gustuko: *Glory, Kamala Khan edo Ms. Marvel, Rina*...

*Millerren Sin City, Thompsonen Habibi, Cossioren Rupay, Bedlam, Plutona, Saga*, eta *Sandman*, Neil Gailmanen *Sandman*. Istorio hauen sorrera komikiei esker izan da posible, medio honi esker garatu baitute euren potentzial osoa. Testu aberatsez eta marrazki ederrez osatutako arte lan bikainak dira komikiak, eta maite ditut.

*Batman* eta *Adele Blanc-Sec* izan ziren nire lehen kuttunak, baina ikusi duzuen bezala maitasun-aitorpen hau ez da monogamikoa. Inondik inora ere. Are gehiago, zuek ere maita ditzakezuenaren esperoan idatzi dut aitorpena.



**ARGITARATZAILEA:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
**KUDEATZAILEA:** Jexux Murua **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus
**IRRATIA:** 94369 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

tolosaldeko ataria

**TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:**
BERTAKO HEDABIDEAK · galtzaundi · berria · Txolarre · bai euskarari · Bikain

Tolosaldeko gizarte eragileak

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

**TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:**
**Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Azaleko irudia:
**Oskar Tena**

# HAMABI ABESTI, 75 INAUTERI KONTATZEKO

Tolosako Kabi Alai elkarteko txarangak 75 urte beteko ditu datozen inauterietan, eta hamarkadatako ibilbide hori biltzeko diskoa grabatu dute; kalejira egingo dute, gaur, herria girotu eta estudioko lana plazaratzeko.

**Itzea Urkizu Arsuaga**

Badirudi urteak azkarrago pasatzen direla inauteriz inauteri kontatuta, urtez urte kontatuta baino. Hala gertatu zaio, behintzat, Kabi Alai elkarteari: konturatzerako, 75 urte bete ditu beren txarangak. 75. urtea eta 76. inauteriak izango dituzte aurtengoak, eta hamarkada horien guztien sokak emandako bizipen, oroitzapen eta doinuak estudioko lan batean bildu nahi izan dituzte, efemeridearen indarra baliatuz: *Kabi Alai txaranga. 75. urteurrena* eskuragarri da, jada, inauterizaleenen gozamenerako.

Kabi Alai txarangak 75 urte beteko ditu aurten eta, besteak beste, disko beri bat grabatu dute, inauterietako doinuekin. KABI ALAI TXARANGA / ATARIA

tolosaldeko ataria

ataria irratia · ataria internet · ataria prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

1942ko Asteartita zen, tolosarrek Kabi Alai txaranga estreinakoz ikusi zuten eguna. Artean ez zuten soinean jantzi, gaur egun hain bereizgarri zaien alkandora txuri-urdina, baina Kabi Alai txarangaren grina inauterizaleak mendeen mugak ere zeharkatu zituen eta, gaur egun, oraindik, festaren ezinbesteko pieza horietako bat da, zalantzarik gabe.

**Kutunenak**

Urtemugaren marrazkia koloreztatzen hasteko, Kabi Alai elkarteak hamabi kantuko diskoa oparitu nahi izan die, tolosar inauterizaleenen belarriei. Azaro erdialdean grabatu zuten, ostiralean hasi eta igandean buka, eta Andoaingo Garate estudioak izan zituzten aterpe, Mikel Krutzagaren nahasketekin.

Asier Peñagarikanok eta Kike Ceak aurkezpenean azaldu zutenez, «beti» izan dute disko bat grabatzeko asmoa: «Urteurrena probestu nahi izan dugu horretarako eta, gainera, oraindik grabatu gabe zeuden bi kantu ere grabatu ahal izan ditugu».

Joxe Mari Amianoren eta Txomin Castroren omenez konposatutako kantuak dira lehen aldiz grabatu dituzten horiek eta, haiekin batera, beste zortzik biribildu dute argitalpena: «Batetik, elkartearekin lotura berezia duten doinuak dira eta, bestetik, Tolosako inauterietan esanguratsuenetakoak diren kantuak». Horrela, Ostegun Gizeneko *Sasikoipatsu, Trilingue, Antolinatxo, Praxkuarena, Irureta, Galtzaundi, Los Conformes, Kabi Alai* eta *Jota* entzungai izango dira lan berrian.

**Inauterien sekretu txikiak**

Guztiak ere, Joakin Ortega *Canario* eta Ibon Mendibil Incansables txarangako kideek moldatu dituzte estudiokorako, eta ia kantu guztiek dute bitxikeriaren bat atzean.

**Gaur iluntzean kalejira egingo du Kabi Alai txarangak, herria girotu eta diskoa plazaratzeko**

**Hamabi doinu bildu dituzte estudioko lanean, eta Andoaingo Garate estudioan ondu dute lana**

*Trilingue*-k, esaterako, ez du egile ezagunik, baina elkarteko kide helduenek Kabi Alairentzat sortua izan zela diote,eta horregatik aukeratu dute diskorako.

Bide beretik, Tolosako inauterien balizko ereserkietako bat ere hautatu dute Kabi Alai txarangaren 75. urteurrenerako: *Galtzaundi*. Aski ezaguna da Ramos Azkarate zapatari eta idazlearen egiletza –hitzena–, baina, kontrara, doinu hunkigarriaren jatorria inork gutxik ezagutzen du. Bada, Peñagarikanok eta Ceak argitu zuten, diskoaren aurkezpenean: Jose Rogelek sortu zuen melodia. Antza, 1875ean Valentzian (Herrialde Katalanak) konposatutako *El figurín* zarzuelaren zati bat da, eta Azkaratek hitzak jarri zizkion 1882an.

Azkenik, labetik atera berri den diskoak *Los Conformes* doinuaren jatorrizko bertsioa ezagutarazteko aukera ere eskainiko die entzuleei: «1951. urtean Los Conformes txaranga sortu zuten zazpi lagunek, eta Florentino Peñafielek kalejira hori sortu zien. Partituretara jo dugunean, ikusi dugu gaur egun kantua ez dela jatorrizko bertsioari jarraituz jotzen. Horrela, diskoan berezko partitura interpretatu dugu, jendeak ezagutu dezan».

Hamabost egun baino ez dira falta, tolosarren zorion perfektua lehertu, eta astebetez kaosaren munduan murgiltzeko eta, atarikoen ederra baliatuz, Kabi Alai txaranga kalera irtengo da, gaur iluntzean. «Herria girotu nahi dugu eta, bide batez, disko berria ere plazaratuko dugu». Txarangazaleek, beraz, aukera bikaina dute, gaur, inauterien harra baretzen hasteko.

Elkartean bertan aurkeztu dute diskoa eta, gaur iluntzean, kalejira egingo dute herrian barrena. I. URKIZU

www.ataria.eus · 107.6 fm
2017ko otsailaren 10a

Astelehenean, 'Xalbador' zenari buruzko dokumentala ikusi ahal izango da 19:00etan hasita. ATARIA



# Lau aurpegi zituen Urepeleko artzaina

Eneko Dorronsorok zuzendutako 'Xalbador, izana eta izena' dokumentala eskainiko dute, astelehenean.

**Josu Artutxa Dorronsoro**

2014an estreinatu zen lana, eta orain bi urteko korrika kulturalaren barruan bide polita egin zuen, Urepelen hasi zelako. Orduan, herriz herri erakutsi, eta askorik mugitu gabe, proiektuarekin aurrera jarraitzen dute orain. Horien artean, dokumentalaren zuzendari izan zen Eneko Dorronsoro zumaiarra dago. Astelehenean, 19:00etan eskainiko dute dokumentala, Anoetako Mikelasagasti auditorioan, eta amaieran, Amets Arzallus bertsolariak hartuko du hitza.

«Aitaren bitartez etorri zitzaidan proiektu hau, beti egon baita bertsolaritza munduari lotuta», adierazi du Dorronsorok. Txikia zenean, aitak asko busti zuen bertsolarien historiekin; garai hartan, bertsoen antologien inguruko liburu bat idazten ari zen. *Xalbador* beti buruan izan dute etxean; «fikziozko istorio bat dirudi, baina errealitatean gertatutakoa da, eta hortik abiatu nintzen pixka bat», dio.

Bere lan egiteko moduagatik, dokumentalak prestatzerakoan, pertsonengana jotzen du, bizirik daudenengana. Kasu honetan, *Xalbador*, zoritxarrez, ez du bizirik harrapatzerik izan. Hala ere, ez du deskubrimendu handirik egin lan honetan, baina *Xalbador*-en ingurua bizi izan du. «Familia horrek markatu nau ni, eta hor ikusi dut *Xalbador*-en eragina nolakoa izan den», aipatzen du Dorronsorok.

## Seme-alaben erantzuna

*Xalbador*-en irudia, nagusiki, lau seme-alaben bitartez osatua agertzen da dokumentalean. Dorronsorok bazuen intuizio bat, aitaren profil desberdinak beraien erantzunetatik osatuko zituela, bakoitzak baduelako *Xalbador*-ena den zerbait. Asmoa, bakoitzaren bitartez aita irudikatzea zen. «Baina, seguru, berak lau ertz baino gehiago zituela, baita bere semealabek ere», gehitzen du.

Erraza egin zitzaion horiengana iristea grabaketak burutzeko. Horietako batengana berriro bueltatu zenean honakoa esan zion: «Ez nuen espero itzuliko zinenik». Horrela kontatuta, badirudi gauza zaila izan zela. Dorronsoro, berriz, momentu horretan harritu egin zuen hark esandakoak, ez zitzaiolako iruditu inoiz prest egon ez zirenik. «Hala ere, egia da urtebete aritu ginela elkarrekin lanean, eta konfiantza hartzera erraz iritsi ginela», aitortzen du bizitako guztiaren ondoren. Guzti horrek, gainera, Dorronsororen ikuspuntua aldatu zuen, egitera zihoan proiektutik, gerora egin zuenera.

Horiekin batera, bertsolaritzako beste hainbat pertsonaia ere elkarrizketatu zituzten dokumentalerako. «Niretzako garrantzitsuena etxeko bizitza hori zen, baina *Xalbador* izan dena izan da, bertsolari ona zelako». Orduan, hori kontrastatzeko, edo horretaz hitz egiteko, egokia iruditu zitzaion bertso munduko pertsonaiekin hitz egitea. Tartean, Amets Arzallus, astelehenean bertan izango dena. Arzallus, gainera, *Xalbador*-ez asko ikasitakoa da, bere bertso asko entzundakoa, eta bera bezala, mugakoa. Beraz, dokumentalaz mintzatzeko «pertsona egokia» iruditzen zaio Dorronsorori.

**Aitaren profil desberdinak beraien erantzunetatik osatu zituen; bakoitzak baduelako 'Xalbador'-ena den zerbait**

## Ezin geldirik egon

*Odolaren mintzoa* idatzi zuen behin *Xalbador*-ek. «Nirea, ordea, ez dakit odolaren mintzoa den, baina odol isurketa handiak egiten dira elkarrizketa osteko lanetan; edizio lana, batez ere, gogor samarra izan zen». Azkenean, Maddalen Sarasuak hartu zuen muntaketaren patroi lana. Dorronsorok hainbeste sakondu nahi izan zuen, eta gauza asko utzi behar izan nituen kanpoan, guztiari forma on bat ematea ez baita erraza. Geldirik ez egoteak, bizitza ematen dio. «Orain fikzio-dokumental batekin lanean ari naiz Bartzelonan», esan du.

Hainbeste entzun dugun, eta bere abesti eta bertsoak hainbestetan kantatu ditugun pertsonaiaren espiritua nondik dabilen jakin nahi duenak, beste guztiak bezalakoa zen pertsona baten bizitzaz gehiago jakiteko aukera izango du, datorren astelehenean, 19:00etatik aurrera.

# Elkartasuna baino gehiago

3.500 kilo janari, hezkuntza materiala eta pixoihalak zein konpresak bildu dituzte eskualdean, Sahararako

**Rebeka Calvo**

Bukatu da herri sahararrari laguntzeko urtero egiten den janari bilketa. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian bildutako janari zein produktuak otsailaren 25ean aterako dira Saharara, Donostiatik.

13 urte dira jada, euskal herritarren Elkartasun Karabana aterako dela Saharako Errepublika Arabiar Demokratikora eta Tolosaldean, urteroko moduan, janari zein hezkuntza material, pixoihal eta konpresa ekarpenak ugariak izan dira. Aurtengoan, zehazki, 3.500 kilo janari bildu dituzte.

Agus Agote Tolosaldea Sahararekin elkarteko lehendakaria da eta kanpainaren amaiera probestu nahi izan zuen Saharara bideratuko dituzten paleak janari eta materialez gain, Saharar herriarekiko maitasuna ere badaramatela esateko. «Jasaten ari diren legez kanpoko okupazio eta giza eskubideen urraketen ondorioak arintzeko asmoz» egindako ekarpenak direla esan zuen eta giza eskubideen urraketak aipatuta Agdaim Izik kanpalekua ekarri zuen gogora. Marokoko soldaduek indarrez desegin zuten Duintasunaren Kanpalekua eta horren harira egindako epaiketak ekarri zituen gogora. «Sahararren eskubide zibilak era baketsuan aldarrikatzeko kanpalekua zen eta gure elkartasuna adierazi nahi diegu, inongo probarik gabe epaitu dituzten guztiei», esan zuen.

Bildutako janari eta produktuez gain, Agotek Laskorain ikastolak urtero antolatzen duen Merkatu Txikian jasotako diruarekin basamortu erdian anbulatorio bat egiteko lehen faserako dirua bildu dutela esan zuen eta horregatik ere eskerrak eman nahi izan zituen.

Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideekin batera eskualdeko hainbat alkate ere izan ziren kanpaina bukaeran, tartean Tolosakoa, Olatz Peon, eta ekimena ez dela berria gogoratu zuen. «Tamalez, egoera aldatzen ez den bitartean egin beharko dugun ekimena da, eskualdeko udalek hartzen dugu parte, eta hor gaudela errepikatu nahi dugu, laguntzeko prest gaudela. Iritsi dadila karga ondo eta egoera ahalik eta ondoen eramateko balio dezala», esan zuen.

Agotek eskerrak emateko ere baliatu zuen agerraldia. «Atzekoz aurrera hasiko naiz. Eskerrak eman nahi dizkiegu jasotako material guztia Donostiara eramateko lagunduko duten Leaburu-Txaramako Udalari eta Pagola zein Otegi eraikuntza enpresei. Eskerrak ere Tolosaldea Sahararekin taldeari jasotako materiala sailkatzen eta antolatzen laguntzeagatik. Eskerrak Tolosaldeko udal, eskola eta hainbat elkarteri erakutsitako prestutasunarengatik. Eta nola ez eskerrak, Tolosaldeko herritarrei erakutsitako elkartasunarengatik», esan zuen.

Aurtengoa Elkartasun Karabana izan dadila eskatuz eta *Sahara hurra* (Gora Sahara askatuta), oihukatuz hasi ziren Tolosaldean jasotako guztiarekin kamioia betetzen.

Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek eta hainbat udaletako ordezkarik hartu zuten parte, kanpaina bukaera iragartzeko ekitaldian. R. CALVO

www.ataria.eus · 107.6 fm
2017ko otsailaren 10a

# Irizar eta Aduna, lotuta

Andoaingo Sorabilla auzoaren eta Adunako Irizar lantegiaren arteko errepidea zabaldu eta bidegorria egin dute

Ane Urkola

Irizar enpresa Adunan eraikitzen ari den lantegi berritik Andoaingo Sorabilla auzora arteko errepidea zabaldu eta bidegorria egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Errepideko «hobekuntza» horiek aurkezteko ekitaldia egin zuten atzo lantegi berrian eta bertan izan ziren Markel Olano Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia, Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatua, Josu Amilibia Adunako alkatea eta Jose Manuel Orcasitas Irizar Taldeko zuzendaria.

Markel Olanok hartu zuen hitza lehenengo. Adierazi zuenez, Irizar Taldeak eskatu zion Foru Aldundiari lantegiko sarbideak eta errepidea berritzeko: «Diputazioak lagundu egin nahi die gure lurraldearen aldeko apustua egiten ari diren enpresei». Diputatu nagusiak adierazi zuen ekonomiaren berpizkundea «bultzatzea» dela Foru Aldundiaren «lehentasuna». Helburu hori lortzeko, 200 milioi euroko plana jarri zuten abian legegintzaldiaren hasieran; urtero, 50 milioi euroko partida dute beraz.

Diputatu nagusiak Irizar lantegiaren «indarra» azpimarratu zuen: «Irizar erreferentea da eta mundu mailan kokatuko gaitu garraio elektrikoari dagokionez». Era berean, eskertu egin dio Irizarri «Gipuzkoan lantegia sortu, eta eskualdeko herritarrentzako lana sortzea».

Andoain eta Aduna arteko errepidea zabaldu eta bidegorria hobetu dute. ANE URKOLA

## «Etxe osoaren lana»

Diputatu nagusiaren hitzetan, ekonomiaren departamentutik haratago, «etxe osoaren lana da ekonomia suspertzea». Hori horrela, Aintzane Oiarbide Bide eta Azpiegituretako diputatuak ere hartu du parte ekitaldian. «Enpresa berriak trafiko pisutsua eragingo du eta sarbide berriak egitea onuragarria izango da industralde guztiarentzat». Era berean, adierazi du mugikortasun jasangarriaren «aldeko apustua» dela obra hori; izan ere, bidegorria sortu dute Irizar enpresaren eta Andoaingo Sorabilla auzoaren artean.

Josu Amilibia Adunako alkateak azaldu zuen «urte askotako lana» izan dela eta «azkenean» egin dutela bidegorria. Nabarmendu du ibilgailuen segurtasuna handituko dela, eta oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna hobetuko duela. Zoriondu egin zuen Irizar lantegia: «Irizarrek esangura handia du eta ziur onura handiak ekarriko dizkiola herriari eta eskualdeari».

Ekitaldiaren amaieran, Jose Manuel Orcasitas Irizar Taldeko zuzendariak hitz egin zuen: «Prest daude sarbideak. Itxura ederra hartzen ari den lantegia amaitzea bakarrik falta da». Lantegia maiatzerako amaitzea espero dute eta ziurtzat jo du lantegiak arrakasta handia izango duela: «Ideiak garatzeko eta lanpostuak sortzeko irrikitan gaude», adierazi zuen.



## 'Francoren bilobari gutuna' antzezlana, Gurean

*Francoren bilobari gutuna* antzezlana eskainiko dute igandean, Villabonako Gurea antzokian. 19:30ean hasiko da ikuskizuna eta sarrerak antzokiko lehiatilan bertan salduko dituzte, 18:00etatik aurrera. Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariek idatzi dute gidoia eta Ximun Fuchsek zuzendu du.

## Ahoztar Zelaietaren liburuaren aurkezpena

*Evasores, morosos y millonarios vascos. Panama connections* liburua aurkeztuko du gaur arratsaldean Ahoztar Zelaietak. Anoetako Gaztetxean izango da aurkezpena, 18:30ean. Egin-en ikerketa taldean, Ardi Beltza eta Kale Gorria aldizkarietan eta kazetaritza ikerketako beste hainbat proiektutan aritutakoa da Zelaieta.

## Otsailaren 17an aterako dira Kaldereroak Anoetan

Anoetan ere Kaldereroak ospatuko dituzte otsailaren 17an. Plazatik aterako da kalejira eta Herriko plaza, Solkorre, Hozpel eta San Juan kaleak igaro ondoren plazan amaituko dute; ondoren txorizo pintxoak eskainiko dituzte. Otsailaren 16an egingo dute entsegua 19:15tik 20:00etara, Mikelasagasti auditorioan.

Insaluseko langileek elkarretaratzea egin zuten, atzo, enpresa atarian. Gaur eta datorren astean ere bi orduko lanuzteak egingo dituzte. R. CALVO

# Galdutakoa berreskuratzeko

Lizartzako Insalus enpresako langileek bi orduko lanuzteak hasi zituzten atzo; astelehenean bilduko dira enpresarekin

**Rebeka Calvo**

Krisiaren mamuaren aitzakian soldata jaitsierak izan zituzten Insaluseko 25 langileek. Beldurtu ere egin ziren, enpresa gehienetan krisia gora eta krisia behera hasi ziren. Lantokiak itxiko zituztela, ezin eutsiko ziotela... hasi ziren zuzendaritza asko, eta guztien onerako edo, jaitsierak onartu zituzten. Baina galdutako hori berreskuratzeko garaia ere heldu dela uste dute eta hori eskatzen diote enpresari. «Enpresa hitzarmena itxi ezinik gabiltza. 2015ean bukatu zen eta iazko urtea negoziaketan eman genuen, akordioetara iritsi gabe. Soldata ere jaitsi ziguten eta enplegua berregituratzeko plana izan genuen. Galdutakoa berreskuratzeko borrokatu behar dugula uste dugu, iritsi dela unea», esan du Joxe Soroa Ibarluzea langileen ordezkariak. «Guk hiru urtetan galdutakoa berreskuratzea planteatu genuen eta enpresak KPIa eta pixka bat gehixeago bakarrik eman nahi digu. Ez dira gure proposamenera gerturatzen», gaineratu du.

Krisiaren aitzakian kendutakoa, egoera hobetzerakoan itzuliko zietela agindu bai, baina hitza ez dutela bete nabarmendu du Soroak, «hiru urtetan berreskuratuko genuela esan zuten, baina ez dute ezer egin». Egoera honi urtarrileko nomina oraindik ez dutela kobratu gehitu behar zaio. Bestelako eskaerarik ere badute lan hitzarmenean sartzeko, lantokira sartzen diren langile berriek beste langileekin berdintzearena. «Gutxiago kobratzen hasten dira eta gure lan bera egiten dute, egoera orekatzea eskatzen dugu». Astelehenean bilera dute hitzarmenaren harira eta emaitzaren zain daude. Enpresak langileek galdutakoa bueltatzeko pausorik emango ez balu lanuzteekin jarraituko lukete. Gaur eta datorren astean 2 ordukoak egingo dituzte, otsailaren 20ko astean 4 orduz egingo lituzkete lanuzteak eta hilabete bukaeran erabateko lanuztea egingo lukete.



hilberriak • urteurrenak • eskertzak

*Eskelak orain merkeago!*

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • **Harpidedunentzat 50 €**

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • **Harpidedunentzat 75 €**

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • **Harpidedunentzat 25 €**
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

# Urrezko aizkolariak, Perurena eta marka historiko bat

Joseba Otaegik larunbat honetan jokatuko du binakako urrezko aizkolarien finalerdia. ANE URKOLA

Negu astea izan dugu, eta neguan tokatzen diren kirolak. Egin litezkeen batzuk ez dira egiten, baina aizkora eta harri-jasotzaileak bai, hauek ibili dira. Lasto altxatze, trontza, ingudea... horien garaia ere bada, baina horiek geldirik daude. Sega garaia ez da, adibidez, nahiz eta garai batean neguan ere ibiltzen ziren segalariak. Ikusita dauzkat hondartzan entrenatzen. Edo entzuna daukat kamioika hondar etxera eraman eta han ibiltzen zirela neguan, erritmoa ez galtzeko, kolpeka-kolpeka. Gaur egun ordea, garai honetan ikuskizuna lehen esandakoek jartzen dute. Eta iragan ostiralean Beasainen eskualdeko bi aizkolari izan ziren, elkarren aurka.

JOXE ANJEL SARASOLA

**Otaegi eta Arria V.a nagusi**

Egur Sportek negu aldean antolatzen ditu hainbat txapelketa, eta orain, binakako urrezko aizkolarienaren garaia da. Ligaxkako azken jardunaldia Beasainen jokatu zen, ostiralean. Alde batetik, Joseba Otaegi zizurkildarra eta Xabier Orbegozo *Arria V.*a. Bestetik, Jon Irazu zizurkildarra eta Patxi Mindegia. Benetan oso lehia polita eskaini zuten lau aizkolariek. Parean ibili ziren denbora guztian, nahiz eta amaierako denborak hori ez duen erakusten. Esan beharra dago egurrek markatu zutela diferentzia hori. Adar begiak bi bikoteek izan zituzten, eta Otaegi-Arria V.ak hala moduz gainditu zituzten. Baina azken enborrean Irazuri eta Mindegiari galanta atera zitzaien; eta hor ihes egin zien denborak. Azken ariketa horretara iritsi arte, aurretik ziren gero galtzaile izango zirenak. Amaieran, 23:58 Otaegi eta Arria V.ak, 25:47 Irazu-Mindegiak. Azpimarratu beharra daukat Patxi Mindegia. Beasainen oso ondo ikusi nuen, eta goraka datorren aizkolaria da. Oso aizkolaria da, nahiz eta kilo batzuk izan, bere anaia Migel Mindegia bezala. Oso ondo ikusi nuen: bizi, bere burua kontrolatuz... Finalerdietan ezustekoren bat eman lezake bikote honek. Izan ere, behin ligaxka amaitu ondoren, hiru finalerdi jokatuko dira orain. Lehena, larunbat honetan, Arantzan, 19:00etan. Alde batetik, Joseba Otaegi eta Xabier Orbegozo egongo dira, eta bestetik, Jon Rekondo eta Donato Larretxea. Irabazleak finalera sartuko dira.

Beste bi finalerdiak otsailaren 19an jokatuko dira Oñatin, 12:00etan. Irazu eta Mindegia Vicente eta Saralegiren aurka, eta Atutxa-Mugertza, Lopez de Azpilikueta-Otañoren aurka. Lehia hauetatik irtengo dira hiru finalistak.

Aizkolariekin batera harri-jasotzaileak aritzen dira txapelketa honetan. Kasu honetan, ordea, izen ezagunena baino etorkizuneko harri-jasotzaileen txapelketa antolatu du Egur Sportek. Xabier Peñagarikano, Urtzi Telleria, Jagoba Otaegi, Iñigo Izagirre, Gorka Etxeberria... lau harrirekin bi minutuko txandetan ibiltzen dira. 125 kiloko koadroa, 125eko zilindroa, 113 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bolarekin. Beasainen, orain arteko jasoaldi gehien ikusi ziren. Urtzi Telleriak 66 lortu zituen, eta Iñigo Izagirrek 68. Saiotik saiora hobetzen doazen zenbakiak dira horiek.

Esan beharra daukat, galdetu didatelako, Beasaingo herri kirol jaialdiaren bezperan Iñaki Azurmendirekin izan nintzela afaltzen. Apustu saiakera eta gero izan zen. Penaz zegoen mutila; triste. Behetik gora datorrela badaki, eta lan polit bat egiteko asmoa zuen apustua itxi izan balitz. Bere buruari esaten zion agian diru gutxiago esan izan balu apustua jokatzeko aukera gehiago izango zela. Izan ere, 12.000 euro esan zuen, eta hortik ez zela jaitsiko. Horrek galtzailearentzat zuloa suposatzen du; diru dezente galtzea. Baina gauzak horrela geratzen dira, Azurmendiren apustuari inork ez ziola erantzun.

**Perurena eta marka historikoa**

Inaxio Perurena ere gogora ekarri nahi dut, ari delako isil-isilik lanean. 310 kiloko errektangularra jaso nahi du, bere marka jartzeko. Prestaketa gogorra egiten ari zaio, normala den bezala. Ea bere burua prest ikusten duenean datarekin albistea ematen digun leitzarrak. Gustura hartuko genuke.

Azkenik, ez dut esango izenik, baina bai historian dagoen marka bat hausteko ahaleginetan dabilela harri-jasotzaileren bat. Nire ustez aukerak baditu, gainera. Baina momentuz, ez dut izenik esango, gero bere burua ez baldin badu prest ikusten penaz geratzeko.

# Kirol Agenda

## ESKUBALOI TALDEKO KADETEEN ERRONKA HANDIA

**Tolosa CF Eskubaloi taldeko kadeteek igaoera fasea jokatuko dute asteburu honetan, Tolosako Belabietan. Ostiralean, larunbatean eta igandean izango dira partidak. Lurraldeko liga irabazi ondoren lortu dute igoera fasean sartzea tolosarrek, eta igoz gero, hurrengo denboraldia Euskal Ligan jokatuko lukete. Taldetik zaleak Usabalera deitu dituzte, taldeak animoak eskertuko dituelakoan. ATARIA**

## OSTIRALA
## OTSAILAK 10

**ALEGIA**
**ELORRI PILOTALEKUA**
**19:00.** Esku pilota. Intxurrekoen hiru partida, jubenilen mailan.

**AMASA-VILLABONA**
**BEARZANA PILOTALEKUA**
**18:30.** Esku pilota. Behar Zanakoen hiru partida, Infantil eta nagusien mailakoak.

**AMEZKETA**
**LARRUNARRI PILOTALEKUA**
**19:30.** Esku pilota. Zazpi Iturriko alebinen partida.

**IBARRA**
**BELABIETA PILOTALEKUA**
**20:00.** Esku pilota. Sendi Ekintzako infantilen partida.

**LIZARTZA**
**19:00.** Esku pilota. Tolosako infantilen bi partida.

**TOLOSA**
**BEOTIBAR PILOTALEKUA**
**19:30.** Esku pilota. Tolosako alebin eta kadeteen partidak.
**USABAL KIROLDEGIA**
**18:00.** Eskubaloia. Kadeteen igoera fasea: Tolosa CF–Elgoibar.

## LARUNBATA
## OTSAILAK 11

**AMASA-VILLABONA**
**15:30.** Futbola. Billabona FKE–Euskalduna. Jubenilen partida.
**17:45.** Futbola. Billabona FKE–Vasconia. Erregional mailako partida.

**IKAZTEGIETA**
**11:00.** Esku pilota. Intxurreko kadeteen partida.

**IRURA**
**AMETSA TRINKETA**
**16:00.** Esku pilota. Nagusien mailako bi partida. Lehenengoan, Behar Zanakoak ariko dira.

**TOLOSA**
**BEOTIBAR FRONTOIA**
**09:30.** Pilota. Tolosakoen bi partida. Kadeteak eskuz, eta nagusiak gomazko paletan.
**13:00.** Zesta punta. Euskal Herriko Ligako nagusien mailako partida: Beotibarko Unai Lertxundi eta Arkaitz Izagirre, Gasteizko bikotearen aurka.
**19:30.** Gomazko paleta. Tolosako nagusien partida.
**USABAL KIROLDEGIA**
**12:00.** Eskubaloia. Kadeteen igoera fasea: Tolosa CF–Oñati.

## IGANDEA
## OTSAILAK 12

**AMASA-VILLABONA**
**12:00.** Futbola. Billabona FKE–Tolosa CF B. Kadeteen partida.
**16:30.** Futbola. Billabona FKE–Euskalduna. Jubenilen ohorezko mailako partida.

## TALDE NAGUSIAK

**Segorbe**
**LAUBURU IBARRA**
Areto futbola. Otsailak 11, larunbatean, 17:15ean, Segorben Bigarren B Mailako partida.

**Amurrio**
**TOLOSA CF**
Futbola. Otsailak 12, igandea, 16:30ean, Amurrioko Basarte futbol zelaian, Hirugarren Mailako partida.

**Leioako Emakumeak**
**TOLOSA CF**
Futbola. Otsailak 11, larunbata, 15:30ean Euskal Ligako partida, Leioako Sarriena futbol zelaian.

**Covadonga**
**TOLOSA CF ESKUBALOIA**
Eskubaloia. Otsailak 11, larunbata, 20:00etan, Xixongo kiroldegian, Zilarrezko Mailako partida.

**Megacalzados Ardoi**
**TAKE REDLINE MEKANIKA**
Saskibaloia. Otsailak 12, igandea, 18:00etan, Zizur Nagusian, EBA Ligako partida.

**IRURA**
**AMETSA TRINKETA**
**11:30.** Esku pilota. Nagusien mailako bi partida. Bietan Behar Zanakoak izango dira.

**TOLOSA**
**USABAL KIROLDEGIA**
**12:30.** Eskubaloia. Kadeteen igoera fasea: Tolosa CF–Barakaldo.

# GARRANTZIZKO GAUZA GUZTIEK KOMUNIKAZIOA DUTE OINARRIAN



## ARANTXA ITURBE
KAZETARIA ETA IDAZLEA

Arantxa Iturbe alegiarrarekin luze eta zabal hitz egin dugu bere ofizio eta afizioaz. 33 urte daramatza lanean Euskadi Irratian eta milaka elkarrizketa egin ditu. Bide horretan, idazle izateko txikitatik zuen nahia ere bete du.

**Imanol Garcia Landa**

Galderak erantzutea baino egitea gustatzen zaio, eta elkarrizketak egiteari buruz luze hitz egin dezake Arantxa Iturbek (Alegia, 1964), batetik eskarmentu handia duelako, eta bestetik horri buruz asko hausnartu duelako. *Euskadi Irratia*-n egiten du lan, *Arratsean* saioan. Hainbat lan idatzi ditu, horietatik batzuk antzezlanak. Azkenekoa, *Koadernoa zuri* izenekoa, liburu bihurtu du Elkar argitaletxearekin, eta martxoan aurkeztuko du. Antzezlana bera gaur bertan ikusi ahalko da Tolosako Leidor aretoan. ATARIA irratian egin diogu elkarrizketa.

**Alegiarra, tolosarra... Nongoa zarela esaten duzu?**

Nik beti esaten dut alegiarra naizela. Alegiarra naizelako, ez banintz ez nuke esango. Tolosartua, hori bai, oso umetan. Baina izatez, alegiarra. Beno, alegritarra; Alegia Alegria zen ni han bizi izan nintzen bitartean.

**Tolosartua diozunean, badago modu bat tolosarra izateko eta beste bat alegiarra izateko?**

Nik uste dut badagoela. Batez ere tolosarra izateko modu bat badagoela. Baina nahiago nuke Tolosatik emititzen den irrati batean horretaz ez hitz egin. Oraindik ere badago modu bat, eta ni

REBEKA CALVO



hona etorri nintzenean gehiago. Lausotzen ari da pitin bat hori, edo beharbada tolosartu egin naiz.

**Ez baduzu esan nahi, zerbait ezkorra delako da?**

Ez ezkorra delako, zenbait egia bozgoraz esatea ez delako komenigarria inorentzat ziur aski. Ez da ez ona, ez txarra; tolosarrek badituzte ezaugarri batzuk alegritarrek ez dituztenak, salbuespenak salbuespen. Ziur asko izango dira alegritarrak tolosarrengandik gehiegi gustatzen ez zaizkidan ezaugarriak dituztenak. Hori egia da. Tolosa bai izan da herri bat, niretzat, herri txiki batetik etorritako pertsona batentzat, ateak oso zabalik izan ez dituena. Ni txikia nintzenean behintzat oso markatua zen nor zen tolosarra, zein familiatakoa zen, eta nor ez. Galdetu egiten zizuten gainera. Tolosan bizi nintzela esaten nuenean, zein familiatakoa nintzen galdetzen zidaten. Eta esaten nuen ez nuela familiarik Tolosan.

**Eta orduan nola begiratzen zizuten?**

Ez dakit zer pentsatuko zuten, beharbada, ume hau zer gauza arraroak esaten hasten den... Ez dakit. Beharbada lausotu da hori denborarekin, baina nik horrela bizi izan dut. Sekula ez naiz tolosarra sentitu; baina ez da ere sentitu beharreko zerbait, ez bainaiz.

**Alegiarekin loturarik baduzu?**

Ez daukat loturarik. Alegrin jaiotakoa naiz, ama alegritarra da, nire herria da, nire txikitako oroitzapenak dituen herria, eta momentu batetik aurrera Tolosara bizitzera etorri ginen. Tolosarekin ez dut lotura berezirik. Hemen bizi naiz, hemengoa da nire semea, eta he-

men egiten ditut erosketak eta hemen hartzen ditut ardo pare bat, libre dudan denboran. Eta lagun asko tolosarrak ditut. Alegrian ez nuen ezer utzi, oroitzapenak besterik ez.

**Hiri handi batera joateko tentaldirik?**

Bai eta ez. Ziur asko gaztea nintzenean gehiago. Bizi izan nintzen Iruñean urte batzuz, Bilbon ere bai. Ez hiri handiak direlako, baina Alegrirekin alderatuta dezente handiak. Gaztetan izan nuen tentazioa. Gustatzen zait asko hiri handiaren anonimotasuna, gustatzen zait inori esplikaziorik ez eman beharra: nora noan, nondik natorren, non bizi naizen... Baina hiri handiaren jendetzak ez zaizkit gustatzen, momentu honetan batez ere; ez zait etengabeko mugimendu hori gustatzen. Anonimotasunak duen hoztasuna ere ez zait gehiegi gustatzen. Tolosa oso neurri politeko herria da.

**Beraz, ezta herri txiki batera ere?**

Momentuak izaten dira. Oso bukolikoa eta erromantikoa jartzen naizenean pentsatzen dut Alegri ere handia dela. Ni, nire ordenadorearekin, paisaia zoragarri baten aurrean... Baina uste dut oso errealista naizela, eta alde onak eta txarrak neurtzeko orduan, herri txiki-txikiak baditu bakardadearekin lotutako zenbait ezaugarri ez ninduketenak ziur aski momentu honetan asebeteko.

**Nola definituko zenuke zure burua?**

Nire burua definitu?

**Bai, bi hitzetan gainera [kar, kar, kar].**

Arantxa Iturbe, eta Maiz erantsita. Irratilaria naiz bokazioz, eta oso txikitatik. Kazetaria gero eta gutxiago, formazioz hala banaiz ere. Ez zait gustatzen gaur egun kazetaritzak hartuta daukan bidea, batere ez. Kontalaria naiz, kontatzen jartzen naizenean, baina saiatzen naiz entzulea ere izaten, ahalik eta entzule onena izaten. Gustatzen zait entzutea, asko ikasten da entzutetik, parean duzunaz. Ez agian munduaz, bizitzaz, baina parean duzunaz bai. Idaztea gustatzen zait, ordu libreetan. Emakumea naiz. Agian hori lehendabizi? Ez dakit. Euskalduna naiz, hori seguruenik bigarren edo hirugarren. Eta batez ere ez zait nire burua definitzea gustatzen.

**Kazetaritza ikastea aukeratu zenuen. Zergatik?**

Idazlea izan nahi nuelako. Askotan kontatu dut anekdota bat, oso txikitakoa. Ikastolan esango ziguten ipuin bat idazteko. Idatzi nuen ipuin bat, oso garatua. Eta Tolosako lehiaketa batean lehenengo saria irabazi nuen. Eta han joan nintzen familiarekin ekitaldi batera. Nik oso garbi nuen ipuin batekin sari bat irabazi banuen, idazlea izan behar nuela. Kontatzen dit amak, kazetari batek egun hartan galdetu zidala, ea zer ikasteko asmoa nuen. Nik idazlea izan nahi nuela esan nuen. Eta berak erantzun zidan hori ezin zela ikasi, eta onena izango zela kazetaritza ikastea edo horrelako zerbait. Amak esaten du, harrezkero, galdetzen zidatenean zer ikasi nahi nuen, «kazetaritza edo horrelako zerbait» erantzuten nuela. Eta Iruñera joan nintzen ikastera.

**Nafarroako Unibertsitatean ikasi zenuen. Zer dela eta?**

Egin nuen eskaera Leioarako eta Bartzelonarako ere. Eta onartu ninduten bietan. Iruñeko aukera izan zen gurasoen agindua. Gurasoak ikasi gabeak biak, inguruan aholku emaile asko eta onak, jende preparatua, ilustratua, asko zekiena, eta denek esan zieten: zuen alaba honek benetan fundamentuzko zerbait egin behar badu, onena Nafarroako Unibertsitatera joatea du. Han ez dute libre utziko. Lotuko dute, asko ikasiko du, profesional ona izango da, asko ordaindu behar da... baina nire gurasoek, pentsatzen dut sakrifizio handiarekin, ordaindu zidaten hango sarrera. Muturtuta joan nintzen; nik Bartzelonako aukera nahi nuen. Iruñera joan nintzen, eta ez naiz inoiz damutu hara joan izanaz. Iruñean ikasi nuen goizetan unibertsitatean era batekoa izaten eta iluntzetan AEKn beste modu batekoa izaten, eta tartean Deiako erredakzioan lan egin nuen, eta Herri Irratian ere. Hamaika lan atera zitzaizkidan, besteak beste, euskaraz ondo idazten zuen jende gehiegirik ez zegoelako; gure ikasturtean esango nuke pare bat ginela. Zorte handia izan nuen alde horretatik. Ikasten eta lanean aldi berean hasi nintzen.

**Lehenengo pausoak Iruñean egin zenituen. Nola iritsi zinen Euskadi Irratira?**

Dena kateatuta etorri zen. Zorte handia izan nuelako. Lehendabiziko maila edo bigarrena egiten ari nintzela

ITZEA URKIZU

Euskadi Irratia sortu zuten. Pare-parera etorri zitzaidan. Ni ordurako prentsa idatzian ari nintzen lanean, eta uste dut irratia sortu zen uda horretan bertan bidali nuela gutuna esanez ikasten hasita nengoela eta prest nengoela lanerako. Deitu zidaten ordezkotza bat egiteko. Uda horretan ezagutu nuen Jaime Otamendi. Hura artean karrera egiten hasi gabea, baina oso garbi zuen kazetaritza egin behar zuela. Elkar ezagutu, eta ikusi genuen irratiaren martxa. Hasi berri-berria zen, oso jende gutxirekin, familia txiki bat bezala. Eta aurkeztu genion ordu ko zuzendaria zenari, Joxe Mari Otermini, proiektu bat larunbatetan saio bat egiteko. Eta segituan zabaldu zizkigun ateak gazteentzako saioak egiteko. Niri euskarak ate guztiak zabaldu dizkit. Ziur aski, aukera egin izan behar banu, aukera egingo nuen euskaraz lan egitekoa; baina ez daukat hain garbi parera egokitu ez balitzaizkit, zer bide jarraituko nuen. Gazteleraz moldatzeko ere gai nintzen, eta gai naiz gaur egun ere. Eta horrela, tonto-tonto, hasi larunbatetan, ordezkotzak ere egiten, eta ia karrera amaitzear, Bilbon nengoela, aurkeztu genuen proiektu bat aste osorako egiteko, eta *Goizean behin* saioarekin hasi ginen. Eta pasa dira 33 urte. Badakit aspaldi izan zela, ahaztu egin zaizkidalako gauzak, baina bestela iruditzen zait herenegun izan zela.

**Beraz, zuek proposatu zenuten 'Goizean behin' saioa.**

Detaileez ez naiz ondo gogoratzen, baina esango nuke sumatu zigutela lanerako gogo bat, eta oso jende gutxi zen orduan irratian. Orain asko hazi da. Ziur aski, behar zuten une batean iritsi ginen gu. Gogoa jarri genuen, ikaragarria, ilusio bat...

**Esan ohi denez, kazetaritzan, egon behar den leku eta unean egon behar zara.**

Futbolariak bezala. Badago zorte kontu bat eta badago gogo kontu bat. Egon behar duzu prestatuta eta gauzak egiteko moduan behar zaituzten momentuan. Eta horrela erraz ateratzen dira gauzak. Niri dena parean egokitu zait, egia esan.

**Eta gero aprobetxatu ere bai.**

Eta eman daukadan guztia. Lan asko eginda eta ilusio asko jarrita.

**Irratigintzan aritu zara batez ere, baina prentsa idatzian ere zutabegile aritu zara.**

Zutabegintza geroagokoa da, idazle bezala norbaitek erreparatu zioenean nire egiteko moduei. Ez zait inoiz asko gustatu zutabegintza, hala ere. Gustatzen zait idaztea, baina badirudi zutabea egiteko herri honetan bereziki, izan behar duela iritzi bat emateko zerbait buruz. Eta zerbait hori normalean izan behar du edo politikari lotua, edo herri honetan hain garrantzitsuak diren, orduan gatazka, euskara, emakume izatea... Eta beti gustatu izan zait horietatik ihes egitea. Eta zutabeak ere idaztea, jakina iritzia emateko, nigandik, ni ari bainaiz hizketan, eta nik sinatuta, baina gustatzen zait asko lerro arteko zutabeak egitea, gauza pertsonalak egitea. Ez dakit, horretan xahutu ditut indarrak, askotan alferalferrik.

**Eta zer moduz aldaketa hori, hitz egitetik idaztera? Beharrezkoa da?**

Nik bai dut beharrezkoa. Hitz egitea, hala ere, nik idatzita egiten dut. Nik hitz egin behar dudan guztia, nik esateko asmoa dudan guztia idazten dut. Eta idatzitako horren gainean egiten ditut gero hitzezko aldaketak, beharraren arabera. Idaztea uste dut pentsamendua antolatzeko, eta gauzak bi aldiz pentsatzeko oso modu egokia dela. Askotan eztabaidatu izan dut lankideekin, eta askotan esaten dena: ez al den freskoagoa, naturalagoa, inprobisatzea. A, bai, ikaragarri, zuk inprobisatzeko gaitasun berezkoa baduzu, eta sekulako grazia, eta egunero umore bertsuz esnatzen bazara, bai. Ez da nire kasua. Ez gaitasunarena, eta ez umore berez esnatzeko ahalmena, eta uste dut idatziaren gainean gauza landuagoak egiten direla, nahiz eta batzuetan freskotasunetik pitin bat galdu.

**Esango nuke irratian inprobisatzen duzula, edo agian hain ondo duzulako aurretik elkarrizketa prestatuta inprobisazioa ematen duela?**

Nik uste dut bigarrenetik gehiago dela. Idatzia da oinarria, abiapuntua. Nire kasuan elkarrizketak egiten ditut batez ere. Elkarrizketa... adeitsuak, esan dezagun. Alegia, ez ditut elkarrizketatzen ez politikoak, beti nahi dutena erantzungo dizutenak, ez kirolariak, partida ondo joan da edo gaizki joan da erantzuten dizutenak. Normalean ibiltzen naiz kultura munduko jendearekin, eta zerbait kontatzea es-

Arantxa Iturbe elkarrizketetan parean duenaren alderik onena ateratzen saiatzen da. I. URKIZU

pero dudan jendearekin. Nire elkarrizketak pitin bat bideratuak egoten dira nire buruan, beno, gure buruan esan beharko nuke, ez bainaiz ni bakarrik saioan, Nekane Peñagarikano eta biok aritzen gara orain. Elkarrizketa batean jakiten dugu hasieratik gutxi gorabehera nondik nora eraman nahiko genukeen, gure buruan nola entzuten dugun besteak zer erantzungo duen, baina jakina, inprobisaziotik beti dago, zeren parekoak ez du beti erantzuten zuk espero duzuna. Hori da alde polita, beti erantzungo balu espero duzuna, ez luke graziarik izango elkarrizketak egiteak. Eta hor bai izan behar duzu inprobisaziorako ahalmena, entzunez moldatzen joateko zuk prentsatuta edo prestatuta zeneukana. Eta saiatzen gara idatzitako hura ere ahalik eta naturalen irakurtzen. Idatzi ere egin liteke esateko edo irakurtzeko; desberdin idazten dugu helburua bat edo beste baldin bada.

**Zenbat elkarrizketa egingo zenituen irratian? Milaka?**

Ba... milaka bai. Ez agian milaka pertsonaia, horietako asko errepikatzen joan direlako.

**Eta guztiak euskaldunak?**

Euskaradunak, bai. Euskaraz esateko gai den jendea, denak.

**Euskaraz hitz egiteko gai diren guztiak elkarrizketatu dituzu dagoeneko?**

[Kar, kar, kar] Ba, ez. Orain, kultura saioan, ez dakit astero, baina bai oso sarri jende berria dator zorionez.

**Beti sortzen dira sortzaileak.**

Bai, eta batzuk esaten didate bere amari egin niola elkarrizketa orain hogei urte honengatik eta harengatik. Zorionez jende berria sortuz doa, eta jende guztia ere ez dugu elkarrizketatu, izan delako tartean nahi izan ez duenik ere. Ez asko, baina izaten da, eta errespetu osoz. Eskubide osoa dute.

**Aldatu zaizu galderak egiteko, elkarrizketak egiteko modua?**

Ikasi egiten da. Nik uste dut helburuak bai lehen eta bai orain berdintsuak izan ditugula. Ofizioa eginez ikasten da; ikasten duzu nora iritsi nahi duzun, hori ere urteek ematen dizuten eskarmentu horrekin. Gero eta argiago dut parekoa ondo entzuteak zer garrantzia duen ikastea, eta hori oso azkar ikasi liteke. Batez ere oso kazetari den jende batek, inpresioa daukat elkarrizketa baino galdeketak prestatzen dituela. Eta agian, elkarrizketa mota batzuetan behar da, baina ni horrek oso deseroso sentiarazten nau. Ikusten badut entzuten ari naizen biren arteko elkarrizketa bat boxeo partida bat dela, deseroso sentiarazten nau. Ni saiatzen naiz parean daukadan horren alderik onena ateratzen. Normalean gure saiora datorren jendea, eta horrek markatzen du, zerbait egin eta hori erakustera datorren jendea da. Eta ni saiatzen naiz bidea errazten ahal den gehien, laguntzen, egin duen hori ahalik eta ondoen erakusten bion artean.

**Badago sekreturik, teknikaren bat, elkarrizketak egiteko? Hitz egiten duzu horretaz beste profesionalekin?**

Etengabe. Asko gustatzen zaidan gaia da. Hasiko banintz elkarrizketak egiteko moduari buruz hizketan, kapaza izango nintzateke bi orduz aritzeko. Uste dut sekretua dela parean daukazunarekin nolabaiteko elkarlan bat egitea, batez ere entzutea, eta bide hori arintzen saiatzea. Gogorra baita erantzunen bidea. Eta bai da gure marka bat galderak oso ondo pentsatuta eramatea, ez erantzun bakarrerako, zortzi erantzun posibleetarako bidea uztea, lerro arteko galderak egitea, oso zuzenean gauzak galdetu gabe. Horretarako sekreturik garrantzitsuena izaten da parekoa lasaitzen asmatzea. Lasaitu zenezake oso erraz, begiratuz, eta esanez ez naiz zure etsaia, elkarrizketa bat egitera goaz. Kazetaritzan askotan gaur egun oso modan daude parean dagoenari zerbait ateratzea. Ez zait estiloa gustatzen, min egiten dit nonbaiten, eta guri dagokigun elkarrizketa motetan gainera ez du tokirik eta zentzurik ere ez.

**Zein indar du elkarrizketa batek?**

Badago komunikazioa baino gauza ga-

rrantzitsuagorik bizitzan? Beno, izan daitezke, baina garrantzizko gauza guztiek komunikazioa dute oinarrian. Parean pertsona bat izatea zer kontatua daukana, eta batez ere deskubritzea parean daukazun guztiak daukala ze kontatua, eta hori ateratzeko gai zarela... Horrek ni asko asetzen nau. Ikaragarrizko zortea dut. Nire lanbidea da eta asetzen nau.

**Txikitan desiratu zenuen idazle izatea, eta hori ere lortu duzu.**

Kostatu zitzaidan. Idazle izateko kazetaritza ikaste horrekin, lerratu nintzen erabat kazetaritza mundura, eta asko interesatu zitzaidan, ikasten hasi nintzenetik. Lankideak xaxatuta ipuin batzuk idatzi nituen, eta lehiaketaren bat irabazi nuen. Hortik gero etorri ziren gauza gehiago argitaratzeko aukerak.

**Emakumeak dira protagonistak zure lan askotan. Zergatik?**

Ez da planteamendu kontziente bat izan inoiz. Kasu batean izan zen kontzientea. Tolosaren urteurrena zenean, enkargu bat egin zidaten. Elkarrizketa asko egin zituzten lekukotzak bilduz, eta pasa zidaten material hori fikziozko ipuin batzuk sortzeko gai izango ote nintzen galdetuz. Emakumeen lekukotzak hartzea erabaki nuen. Beste lanetan ez da izan ezer kontzientea. Niri emakume protagonistak ateratzen zaizkit, eta beti erantzuten dut gauza bera hori galdetzen didatenean: ez diot idazle gizonezko bati normalean galdetzen ea zergatik egiten dituen beti protagonista gizonak. Niri emakumeak ateratzen zaizkit gehienetan eta asko gustatzen zaizkit nire emakumeak.

**Ez dago, beraz, emakumeen ahotsa azaleratzeko nahi bat?**

Inkontzienteki ziur aski bai. Ez da apropos horretan pentsatuta egindako zerbait. Ez hasieratan behintzat. Orain gehixeago. Oso emakume kontalari gutxi azaldu da plazara, oso emakume gutxi azaldu da plazara edozein ofizioetakoa dela ere. Agian bai egiten dut orain ahalegina protagonistak emakumeak izateko. Era guztietakoak: azkarrak eta ez direnak, hiztunak eta ez direnak, zoriontsuak eta ez direnak, zintzoak eta gaiztoak...

**Jendearentzako idazten duzu?**

Hori ez dakit zein puntutaraino den. Jakina idazten duzunean uneren batean etortzen zaizula burura egunen batean norbaitek irakurriko duela. Ez beti. Nik idatzi, niretzat idazten dut. Niri gustatzen zaidana, nahi dudan eran. Literatura edo fikzioa idaztea erabat gauza librea da. Ni neure buruarekin. Jakina, ikaragarrizko poza da egunen batean norbaitek esaten badizu zein gustura irakurri duen zuk idatzitakoa. Poz hori kasik alderatu dezakezu idazten ari zaren momentuan sentitu dezakezun satisfazioarekin. Uste dut zure buruaren aurreneko satisfazio hori berez askoz indartsuagoa dela, eta hori dela indarra ematen didana idazteko. Gainera, orain, urteekin, kentzen denbora gehiago pasatzen dut idazten baino. Ez zait kostatzen folioak idaztea, baina grazia duena da hori dena kentzeak, eta hiru folioetan konta zitekeena, folio erdi batean kontatzea. Eta iruditzen zaidanean bukatuta dagoela, hori irakurri eta esatea, zein ondo... Poz hori ez da konparagarria beste pozekin.

**Eleberri bihurtuko da Agurtzane Intxaurragarekin batera sortu duzun 'Koadernoa zuri' antzezlana.**

Eleberri esatera ez nintzateke ausartuko. Izatez gero, kontakizun luze. Obra berak dituen hitzak dira; antzerkia idazterakoan akotazioak idazten ditugu, zer mugimendu egiten dituzten aktoreek, jarrerak, eta horiek guztiak narrazio bihurtu ditut. Antzezlanean beti markatu behar duzu zein ari den hizketan, eta hemen elkarrizketak dira bere gidoiarekin, pertsonaia zehaztu gabe. Irakurtzeko eta entzuteko kontakizun luze bat da. Obra ikusi duenak beste modu batera irudikatu dezake.

**Nola bukatu nahiko zenuke elkarrizketa?**

Etorriko naizela berriro esanez. Ez nire bizitza kontatzera. Gonbidatzen baldin banauzue beste zerbait egin dudalako, horrek esan nahiko du ez dudala etsi eta segitzen dudala gauzak egiten, eta kontatzeko gogoa izaten.

www.ataria.eus · 107.6 fm
2017ko otsailaren 10a

DANI BLANCO



# ITURBEREN HITZAK INTXAURRAGAK MUNDU BIHURTZEN DITU

'Koadernoa zuri' antzezlana ikusi ahalko da gaur, Tolosako Leidor aretoan, 20:30ean. Hika Teatroak taularatu du, eta gidoia Arantxa Iturbek eta Agurtzane Intxaurragak egin dute, azken hau Hika Teatroaren zuzendaria. Intxaurraga bera da antzezleetako bat, eta besteak, protagonistak, Itziar Ituño eta Miren Gojenola dira.

Bi ahizpen arteko istorio bat da *Koadernoa zuri*, Iturberen hitzetan: «Ama oso fededun, kristau, itxi, zorrotz, esango nuke kasik zikiratzaile baten etxean jaio ziren. Alabak beti bide zuzenetik eta arau oso zorrotzen pean hezi nahi izan dituen ama baten etxean. Eta bi alabak oso ezberdinak dira. Batek ihes egiten dio ama horri, egoerari, eta alde egiten du Afrikara. Beste alaba, aldiz, zintzoa, otzana, ahulagoa esango genuke, geratzen da amaren nahietara. Obra hasten den momentuan ama hil da, eta kanpoan zegoen alaba etorri da amaren etxera, ahizpari ezer esan gabe, eta ustekabean biek topo egiten dute etxe horretan. Handik aurrera elkarri 20 urtetan esan ez dizkiotenak esateko unea da».

Lerro artean istorio bat dagoela uste du Iturbek: «Emakume edo gizon, berdin dit, edozein garaitakoa izanda ere, arau zorrotz batzuen aurrean, jarrera bat baino gehiago hartu litezke. Bat izan daiteke kontra egitea, borroka egitea; bestea ihes egitea; bestea otzana izan eta bizitzak jarriko ditu gauzak bere lekuan pentsatzea».

Iturbe eta Intxaurragaren arteko harremana aspaldikoa da. «*Ai ama!* argitaratu nuen, semea izan eta bi urtetara, ama izateari buruzko nire esperientziaren berri emanez. Agurtzanek liburua irakurri zuen justu bera ama izatera zihoan unean. Eta oso kuriosoa da, haurra izan eta gero, liburua irakurtzen zuen, eta esaten zuen: 'Ema-

kume honek zenbat sufritu duen'. Agurtzanerentzat oso esperientzia ona izan zen amatasuna, zoragarria, pozik zegoen. Ez zen nire kasua, eta behin presentatu zitzaidan irratian, eta esan zidan irakurri zuela nire liburua, eta asko gustatu zitzaiola batez ere ez zeukalako nire esperientziarekin zerikusirik. Horren inguruan antzezlan bat idatzi ote genezakeen galdetu zidan». Idatzi zuten bien artean *Ai ama!*, eta harrezkero hainbat lan egin dituzte elkarrekin. Iturberentzako «oso lan polita» da, «batez ere oso ezberdinak garelako. Berak dena ikusi egiten du eta nik dena entzun. Nik hitza sortzen dut, eta berak hitz hori gero mundu eraikitzen du».

«Oso osagarriak» direla dio Iturbek. «Oso argi dugu nirea hitza dela eta berea antzerkia dela. Konfiantza asko dugu, hainbeste urteren ondoren. Berak garbi duenean testua esku artean duela, hor amaitzen da nire lana. Eta hor hasten da plazarakoa. Eta niretzat oso lan erosoa da. Berak defendatzen du, berak bere irudimenaren arabera egiten du lana. Eta ez naiz prozesu horretako parte. Bai eman dezaket nire iritzia, oso harreman ona daukagu alde horretatik. Baina antzerkia berea da, eta hitza nirea. Eta ikusten dena biona da».

Ez zaio Iturberi berak idatzitako antzezlanak ikustea gustatzen. «Paniko eszenikoaren beste adar bat da. Antzerkia da mundu bat oso gogorra egiten zaidana. Antzezleei begira jartzen naiz pentsatzen ea hurrengo esaldia ahaztuko ote zaien. Eta neroni han goian banengo baino askoz ere urduriago egoten naiz. Entsegu orokorrera joaten naiz, baina estreinaldira ez naiz inoiz joaten. Gaizki pasatzen dut, eta miresgarria iruditzen zait aldi berean hori egiteko gai izatea pertsona batzuk».

Ez du bere burua taula gainean ikusten Iturbek: «Txikitan esaten nuenean idatzi egin nahi nuela, gogoan dut, eta nerabezaro garaian ere bai, irudikatzen nuela nire burua atiko batean bizitzen, katu batekin eta kapela jantzita. Ez zen sekula jende aurrerako gauza bat, baizik neronentzako gauza bat. Eta horretan ez naiz aldatu txikitatik. Jende aurreko horrek erreparoa ematen dit. Deseroso sentiarazten nau».

Tolosako Korreo kalea da denda gehienetarik duena; behaketa egin den kaleetako bat da. I.GARCIA LANDA

# GAZTELERA NAGUSI DEN ARREN, EUSKARA LEKUA HARTZEN

Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosako neguko merkealdi kanpainako paisaia linguistikoaren behaketa egin du, azken hiru urteetan: «Datuak labetik atera berri dira, eta oraindik gogoeta sakonago bat egin behar da».

Imanol Garcia Landa

Galtzaundi Euskara Taldeak bere ekimenez egindakoa da, eta aurreko astean Tolosako Udalaren Euskara Batzordean eman zuten datuen berri. «Galtzaundiren helburua da Tolosako euskararen normalizazioan aurrera pausoak ematea. Alor ezberdinetan egiten dugu lana, eta 2015etik hasi ginen aztertzen Tolosako paisaia linguistikoa», azaldu du Artolak. «Euskaltzaleen artean kezka azaldu zen paisaia linguistikoaren inguruan, ea gero eta erdaldunagoa bihurtzen ari ote zen. Beraz, Galtzaunditik behaketa egitea pentsatu zen, uste hori horrela zen ikusteko».

Paisaia linguistikoaren behaketa egiteko, ez dira Tolosako denda guztiak kontuan hartu. Hain justu, Alde Zaharrean eta Erdialdean egin da behaketa. Bestetik, merkealdi garaia hartu da, Artolak arrazoitu duenez: «Dendek garai horretan botatzen dute amua jendea erakartzeko, paisaia linguistikoan berrikuntza bat suposatzen du, eta horregatik erabaki genuen garai hori aztertzea».

Behaketa egitean ez dira denden barruan sartu. «Lasai ibili gara oinez, fitxa batekin, eta kanpotik denda horrek eskaintzen duena behatu dugu». Hainbat alorretan banatu dute lana: errotulu nagusia; plakak, hau da, ordutegia, irekita-itxita, bultza diotenak; urte guztian izaten dituzten ageriko idatziak, «taila handiak ere baditugu», esaterako; tarifak eta etiketak; eta bereziki merkealdiaren paisaia linguistikoari dagokionez, kartel nagusia nola duen, ehunekoak nola dauden, eta baita azpi-idatziak ere, «dena 5 euroan» bezalakoak. (Taulan ikusi daitezke behaketaren datu zehatzak).

### Paisaia linguistikoaren garrantzia

Euskararen normalizazioan paisaia linguistikoak bere garrantzia duela dio Artolak: «Hainbat soziolinguistek esaten dute hizkuntza batek funtzioak edo zertarakoak behar dituela. Hizkuntza gutxitu batek esparru ezberdinak hartzen doan heinean hizkuntza hori normalizatzen doa, esparru ezberdinetara heltzen ari delako». Era berean, paisaia linguistikoa psikologikoki ere herritarrentzako garrantzitsua dela dio: «Zuk hizkuntzarekiko hartzen duzun uste edo iritzia aldatu dezakezulako. Hau da, Tolosako kaleetan euskaraz ikusten baduzu paisaia linguistikoaren gehiengoa, tolosarrak berak, ume batek, esaterako, pentsatu dezake euskara garrantzitsuagoa dela. Aldiz, kartel guztiak erdaraz ikusten badira, ez dela garrantzitsua izango pentsatuko du. Eta hori dena inkontzienteki jaso daiteke».

Tolosak kanpora begira eman dezakeen irudian ere garrantzia duela dio Artolak: «Esaterako, ETBko eguraldikoak etortzen badira jendeari elkarrizketak egitera, atzean ikusten denak Tolosari buruzko irudia ematen du. Edo kanpotik norbait etortzen bada, eta ikusten badu erakusleiho gehienak euskaraz daudela, pertsona hori norbaitengana joaten denean hitz egitera edota denda batera sartzerakoan, bere hizkuntzaren hautua paisaia linguistikoak berak zehaztu dezake».

Behin behaketa eginda, Galtzaunditik ere garrantzitsua ikusten dute paisaia linguistikoan euskararen presentzia areagotzea. «Azkenean tolosarren

gehiengo handi batek euskararen jakintza badu, kartelak euskaraz jarrita gehiengoarengana iristen zara. Askotan denengana iristeko erdaraz jartzen da. Baina beste alderako pausoak eman behar direla uste dut hizkuntza baten normalizazioan», esan du Artolak.

Aurrera begira, lanketa bat egiteko beharra ikusten dute Galtzaunditik. «Gure proposamena da elkarlana behar dela, udalaren, merkatarien, elkarteen eta Galtzaundiren artean», azaldu du Artolak. «Asmoa da, inor behartu gabe, pauso batzuk ematea. Kanpainekin ez da nahikoa, bestelako gauza batzuk ere eskaini behar dira euskararen presentzia areagotzeko. Datuak labetik atera berri dira, eta oraindik gogoeta sakonago bat egin behar da. Denborarekin ikusiko dugu zer egin behar den». Artolak garbi du paisaia linguistikoak eragina duela euskararen normalizazioan: «Irudi bat ematen duzu; gero erosle bakoitzak emango dio bere balorea horri. Komunitate bat eraikitzen da, kideak komunitate sentitzen diren momentutik. Zuk sinistu behar duzu izan ahal izateko».

## Udala, elkarlanareko prest

Jokin Azkue Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza zinegotziak Galtzaundi Euskara Taldeak egindako lana eskertu du. «Gai hau udalean askotan ateratako kontua da», esan du Azkuek. «Galtzaundik egin duena mahai gainean datuak jartzea da. Aurreko urtean ere planteatu genuen eta gure asmoa da aurten gaiari heltzea».

Udalaren asmoa Tolosa&Co elkarteari behaketaren datuen berri ematea da. «Elkarteko kide dira dendari asko. Gure asmoa da datu horiek aurkeztea eta beraiekin batera ikustea zein urrats eman ditzakegun euskararen erabilera areagotzen joateko», zehaztu du Azkuek. «Gure ustetan oso garrantzitsua da kalean dabilen herritarrak, erostunak, aukera izatea berak erosi nahi dituen produktu horiek saltzen dituzten dendetan euskararen presentzia bermatzea edo gutxienez urtetik urtera indartzea».

Asmoa ez dela erraza gaineratu du Azkuek. «Azken finean horrek eskatzen du denda horretan prestatuta izatea zenbait eduki, eta baita ere gaitasuna izatea era horretako dokumentu eta testuak edo iragarkiak euskaraz jartzeko. Eta horretan gutxieneko gaitasuna behar da eta askotan hori ere falta da». Euskararen erabilera areagotzeko bidean, idatzi finkoak indartzea eta bereziki etengabe elikatu behar diren horietan euskararen erabilera zabaltzea da helburua.

Denda eremu pribatu bat dela kontuan hartu zuten azkeneko Euskara Batzordean. «Egia da merkatalgune handietan legeak ezartzen dituela gutxieneko betebehar batzuk, baina denda txikietan ez dago horrelako betebeharrik», zehaztu du Azkuek. «Eraginkorrena da dendariak sentsibilizatzea eta ikustea ona dela bere negozioarentzat euskara erabiltzea, kontsumitzaile gehiago erakartzeko bide bat dela. Bide hori jorratu nahi dugu beraiekin batera». Azkuek gaineratu duenez, «dendariek beraiek egin behar dute bidea, eraginkorra izango baita hori bere barnetik burutzen bada. Gure planteamendua hortik joango da, dendariek eta elkarteak berak sustatzea hori indartzeko».

Bide horretan udalak lagundu dezakeela esan du Azkuek: «Guk babestu eta baliabideak jarri ditzakegu gure neurrian. Itzulpen zerbitzua dugu eta aurreikusi dezakegu zenbait baliabide ekonomiko hori indartzeko. Aurrekontuetan ere onartu da horretarako kopuru bat, baina azken finean esfortzua egin behar dutenak eta protagonismoa dutenak dendariak dira». Hurrengo pausoa, beraz, Tolosa&Co elkartearekin hitz egitea izango da, Azkuek zehaztu duenez: «Galtzaundik egindako lana aurkeztu eta ikusi egin beharko dugu zein bide jorratu dezakegun euskararen erabilerak indar gehiago izan dezan, beti ere kontsumitzaileen ikuspegitik zerbitzu hobea emateko».



**NEGUKO MERKEALDI KANPAINAKO PAISAIA LINGUISTIKOAREN DATUAK**

| | EUSKARAZ | | | EUSKARAZ GEHIAGO | | | ELEBITAN | | | GAZTELERAZ GEHIAGO | | | GAZTELERAZ | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2015 | 2016 | 2017 | 2015 | 2016 | 2017 | 2015 | 2016 | 2017 | 2015 | 2016 | 2017 | 2015 | 2016 | 2017 |
| PLAKAK (ORDUTEGIA, ITXI-IREKITA) | 37 | 40 | 40 | 4 | 1 | 8 | 37 | 45 | 32 | 2 | 0 | 5 | 20 | 14 | 15 |
| AGERIKO IDATZIAK | 19 | 23 | 20 | 3 | 0 | 0 | 20 | 20 | 34 | 8 | 0 | 0 | 50 | 57 | 46 |
| MERKEALDIKO KARTEL NAGUSIA | 31 | 23 | 33 | 9 | 0 | 6 | 36 | 37 | 41 | 3 | 6 | 0 | 21 | 24 | 21 |
| MERKEALDIKO EHUNEKOAK | 16 | 13 | 22 | 0 | 2 | 0 | 6 | 4 | 8 | 3 | 0 | 0 | 75 | 81 | 70 |
| MERKEALDIKO AZPI IDATZIAK | 13 | 12 | 28 | 0 | 3 | 0 | 23 | 6 | 32 | 6 | 6 | 4 | 58 | 73 | 44 |
| TARIFAK ETA ETIKETAK | 34 | 38 | 37 | 5 | 2 | 4 | 1 | 3 | 12 | 3 | 10 | 1 | 57 | 46 | 46 |

# «Euskara egunerokotasunean landu behar dugu»

Tolosako Errementari kalean dagoen Nerea dendaren jabea da Eguzki Tobes. Garrantzia ematen dio dendan dituen kartelak euskaraz jartzeari.

**Zein kartel dituzu euskaraz dendan?**

Egia esateko, eta hemengoa izanik, denak euskaraz jartzen ditut. Ordutegia, orain merkealdiko kartel nagusia, ehunekoak... Hori da aspaldidanik pixkana egiten joan garena, eta argi daukat horrela izan behar duela.

**Zergatik hartu zenuen erabaki hori?**

Batetik, garrantzitsuena, euskalduna naizelako, eta badakigu non gauden. Orduan, bezeroentzat ere garrantzitsua da, eta identifikazio bat ere bada jakiteko jendeak euskarak duen garrantzia eta horren alde egin behar dugula.

**Garrantzia ematen diozu, beraz, bezeroek ikustea kartelak euskaraz daudela.**

Bai. Guk zortez jaso ditugun ikasketak euskaraz izan dira, eta horretan gogoan ditut gurasoak. Zortez, Tolosan gaude eta euskara da garrantzitsuena.

**Bezeroek zerbait esaten dizute euskaraz daudelako kartelak?**

Oso gutxi dira zerbait esaten dutenak, urtean behin edo bitan, eta pentsatzen duzu zaila dela sinistea baten batek horrelako zerbait esatea... Tokatu izan zait norbaitek «hablame en cristiano» esatea, baina aspaldi ez da gertatu.

**Eta gauza positiboak euskaraz daudelako?**

Orokorrean ez ditugu gauza onak esaten; baloratuko ditugu, baina kostatzen zaigu horiek esatea. Halere, hemen jendeak asko begiratzen du eta nire sentsazioa da jendeak baloratzen duela.

**Bezeroak dendan sartzerakoan normalean gazteleraz hitz egiten hasten dira?**

Orain gutxiago. Urte asko darama dendak martxan, eta datorrenak badaki nora datorren. Oraindik ohitura hori badute inguruko herrietatik larunbatetan etortzen direnek, iruditzen zaie ez dakigula euskaraz. Eta segituan konturatzen dira euskaraz badakizula, eta azkenean beraiek ere eskertu egiten dute. Harremanetan ere konturatzen zara beste konfiantza batekin, beste lasaitasun batekin, aritzen direla jakinik euskaraz dakizula. Eta konturatzen naiz Donostiatik eta kostatik etortzen direnak, horiek badutela ohitura euskaraz hasteko, eta asko baloratzen dute dendariak euskaraz jakitea.

**Tolosako komertzioetan nola ikusten duzu paisaia linguistikoa orokorrean?**

Izan naiz erakusleihoak ikusten, jakinik elkarrizketa egingo genuela, eta iruditu zait, esaterako, gehiago direla euskaraz jarri dutenak merkealdiko kartel nagusia.

**Egokia ikusten duzu kanpainaren bat egitea euskararen erabilera bultzatzeko komertzioetan?**

Dudarik ez. Elkarrizketa hau egitean ere kontzienteagoa naiz nola jartzen ditudan kartelak. Azkenean dendariak gara, eta salmentara eta fakturak egitera eta hainbat kontuetara jarrita duzu burua. Baina euskara egunerokotasunean landu behar dugu.

# Lehiberri Zentroko enpresa haztegian bi enpresa berri 2017an

Lehiberri zentroak ekintzaile berrien esku jartzen duen ENPRESA HAZTEGIAN bi enpresa berri kokatu dira urtea hastearekin batera. Haztegiaren helburu nagusienak enpresa berrien sorrera eta kokapena erraztea, lanpostu berrien sorrera, lanerako ingurumari egoki baten eskaintza, eta, azken finean, enpresaren lehiakortasun aukerak handiagotzea dira.

Haztegia oinarrizko baliabide material eta zerbitzu komunez hornituta dago, ekintzaile berrien egitasmoak bertan kokatu ahal izateko hasierako hiru urteetan.

## MARINA MASTER

**TALDE EKINTZAILEA**
NeJCu Rudel (40 urte, Eslovenia–Tolosa).

**ENPRESA/IZEN KOMERTZIALA**
MARINA MASTER *www.marinamaster.es*
*info@marinamaster.es*
Telefonoa: 636 141243.

**JARDUERA**
Kirol Portuen kudeaketarako softwarearen garapena, salmenta eta instalakuntza:
·Kirol Portu, Klub Nautico eta Marinen kudeaketarako ERP integralaren garapena eta salmenta.
·Kirol Portuen gune ezberdin guztiak erremienta informatiko bakar batekin kudeatzeko aukera.
·Mugikorraren bidez kudeatzeko aukera.
·Bezeroen beharretara egokitzen den softwarea
·Softwarea euskaraz garatzeko aurreikuspena dauka Euskal Kirol Portuak erakundearekin izandako harremanen ostean.

**ENPLEGUA**
1+1

**BEZEROAK**
·Gutxienez 100 amarraleku dituzten:
·Kirol Portuak; Klub Nautikoak eta Marinak·Luxuzko Portuak (amarraleku gutxiago izan arren goi mailako zerbitzua eskaintzeko premia)

## IGORA DRONE

**TALDE EKINTZAILEA**
Iñaki Gereñu (33 urte, Tolosa) eta Jon Aldalur (28 urte, Tolosa).

**ENPRESA/IZEN KOMERTZIALA**
IGORA DRONE *www.igoradrone.com*
*info@igoradrone.com*
Telefonoa: 665860075 / 675203946.

**JARDUERA**
Drone operatzaile eta pilotu:
·Pilotu profesionalek gidatutako Dron bidezko filmaketa zerbitzuak.
·Argazkigintza eta grabazio aereoa espazio itxi naiz irekietan.
·Edizioa eta postprodukzioa..
·Tripulatu gabeko airezko irtenbideak (publizitatea dokumental grabaketa, espazio itxietako grabaketak barne hegaldiekin, bideo korporatiboak.

**ENPLEGUA**
2

**BEZEROAK**
·Enpresa Industriala; Inditex; Arkitektura eta eraikuntza enpresak; Administrazio Publikoa; Turismo enpresak (hotelak, erakunde publikoak, kanpiñak, parketxeak,...
·Beste batzuk

Enpresa edota jarduera ekonomiko bat sortzear bazaude, edota azkeneko 12 hilabeteetan sortu baduzu, jarri harremanetan TOLOSALDEA GARATZENEKIN (*zubeldia@tolosaldea.eus*), haztegietan kokatzeko dagoen aukera ezagutzeko.

# Boloñesa pasta pastela

Pasta ohiko moduan egin beharrean, ezberdin egingo dugu. Boloñesa pasta pastela eran egingo dugu, eta oso erraza da eta gozoa geratzen da. Horretarako lehenik eta behin tipula eta baratxuria txikitu eta erregosiko ditugu, eta gero haragia gehituko diogu. Batzuk ardo txuri pixka bat botatzen diote, beste batzuk ez, gustuen arabera. Tomatea gehituko diogu haragia egin bitartean edukiko dugu sutan. Honekin saltsa eginda edukiko genuke. Saltsa hori labean sartzeko moduko ontzi batean jarriko dugu.

Beste aldetik, guri gustatzen zaigun pasta jarriko dugu egosten, makarroiak, tallarinak edo espagetiak, bakoitzak nahi duena. Betiko moduan egosi, ur guztia kendu eta gainetik jarriko ditugu. Horrela erdia prestatuta daukagu.

**AGUSTIN LASKURAIN**
SUKALDARIA

### Arrautzak gehitzeko unea

Egin nahi dugun tamainaren arabera, hiru, lau edo bost arrautza irabiatuko ditugu esnearekin. Honi gazta xehatua gehituko diogu, eta dena nahastuko dugu. Hau ontzian gainetik botako dugu eta dena xurgatu egingo du. Gazta birrindu gehiago edukiz gero, gainetik botako diogu.

Labearen arabera baina, 180 gradutan, 25-30 minutu labean sartuko dugu. Budin, pastel edo tortilla bat irudikatuko dugu, eta oso gozoa geratzen da.

**OSAGAIAK**

- Pasta
- Haragi xehetua
- Tipula handi bat
- Baratxuri ale bat edo bi
- Tomatea
- 3-5 arrautza
- Esnea
- Gazta xehatua

# Agenda

## OSTIRALA
## OTSAILAK 10

**ALEGIA**
**BERTSO AFARIA**
**20:30.** Zahagiardoa, gaztetxean.
**22:00.** Alegia eta Ataun-Segurauraren arteko kanporaketa jokatuko da, gaztetxean bertan, doan.

**ALTZO**
**EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA**
**21:00.** Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatuko da, Elordi elkartean.

**ANOETA**
**HITZALDIA**
**18:30.** *Evasores, morosos y millonarios vascos* hitzaldia emango du Ahoztar Zelaietak, gaztetxean.

**BERASTEGI**
**BILERA**
**18:00.** Udalak plaza berritzeko lanak esleituko ditu aurki eta horretarako herritarrekin bilera egingo dute iritziak jasotzeko. Udaletxeko erabilera anitzeko gelan izango da, eta herritar guztiak daude deituta parte hartzera.

**IKAZTEGIETA**
**BILERA**
**20:00.** Ikaztegietako Festa Batzordeak lehen bilera egingo du San Lorentzo jaiak antolatzen hasteko, udaletxeko batzar aretoan.

**TOLOSA**
**IKASTAROA**
**17:00-20:00.** Box.A. elkartea + Doctora Creativaren eskutik, liburu-joste esperimentala, fanzineak eta mikroedizioa izango da, Box.A elkartean.
**TXOTX SOLIDARIOA**
**20:30.** Casino elkarteak antolatuta afaria egingo da, eta gonbidatu berezia Juan Martinez de Irujo izango da, Zerkausian. Greziako Chioseko errefuxiatuei janaria eta bazkaltzeko azpiegiturak eramateko izango da bildutako dirua. Zaporeak GKE-ra bideratuko da.
**ANTZERKIA**
**20:30.** *Koadernoa zuri* antzerkia izango da, Leidorren. Konfliktoa, emozioak, poetika, umorea...
**KONTZERTUA**
**23:30.** Ibai Marin bakarlariak kontzertua eskainiko du, Orbela tabernan.

### LIZARTZAK EMANGO DIE HASIERA INAUTERIEI

**Tolosa inauterietarako prestatzen ari bada ere, Lizartzan prest dituzte. Otsailaren 11an emango diete hasiera, urteroko ohiturari jarraituz, txekorraren festarekin. Antzerkia izango dute herriko pilotalekuan eta Otsolar dantza taldearen dantza emanaldia ere bai. Baina bigarren asteburuan izango dituzte ekitaldi gehienak. M. UGARTEMENDIA**

## LARUNBATA
## OTSAILAK 11

**ADUNA**
**ANTZERKIA**
**19:00.** Urtain antzezlana ikusi ahal izango da Zurriola Antzerki eskolaren eskutik, Asvinenean. Sarrera: 7 euro.

**ANOETA**
**TAILERRA**
**09:30-13:30 / 15:30-18:30.** Reflexoterapia, saio teoriko-praktikoa izango da, udaletxean.

**BERASTEGI**
**TAILERRA**
**17:00.** Beatriz Armendariz irudi aholkularlak tailerra eskainiko du udaletxeko erabilera anitzeko gelan. Hainbat arropa eramango ditu eta irudi aholkularitzarako aholkuak emango dizkie bertaratzen direnei.

**LIZARTZA**
**INAUTERIAK**
**12:00.** Inauteriei hasiera emango zaie gibela dastatuz, udal ordezkariak eta txekorra plazan dituztela.
**Ondoren.** Antzerkia eta Otsolar dantza taldearen emanaldia.
**19:00.** Kantu poteoa herriko inauteri kantuak abestuz.

**TOLOSA**
**XXIII. ZUHAITZ EGUNA**
**09:00.** Zuhaitzak, zuhaixkak, bonsaiak eta landareak izango dira protagonista azoka berezian, Trianguloan.
**ERABAKI FEST**
**11:00-21:00.** *Erabakitzera goazela* ospatzeko Tolosaldeko Giltzarriak egun osoko festa antolatu du. Herrietatik bizikletaz gerturatu, eta Alondegia plazan elkartuko dira.
**SAIO IREKIA**
**17:00-20:00.** Box.A. elkartea + Doctora Creativaren eskutik, Collage Gudua, etxeko aldizkari zaharrekin eta abarrekin batailla surrealista egingo dute, Box.A elkartean.
**IKUSKIZUNA**
**18:30.** Peus de Porc Kataluniako taldeak, zazpi urtetik gorako ikusleentzat eskainiko du ikuskizuna, gaztelaniaz, Topic zentroan.

## ‘FRANCOREN BILOBARI GUTUNA’ ANTZEZLANA, GUREAN

**Amasa-Villabonako Gurea antzokian *Francoren bilobari gutuna* antzezlana ikusteko aukera izango da, igandean. Unai Iturriaga eta Igor elortza bertsolariek idatzi dute, eta Ander Lipus, Patrizia Urrutia, Manex Fuchs, Zoila Berastegi, Urko R. Pescador, Pako Revueltas eta Erika Olaizola ariko dira aktore lanetan oholtza gainean. ATARIA**

**KONTZERTUA**
**22:30.** Bonberenea Txarangak *Berriozar* disko berria aurkeztuko du, Bonberenean.

# IGANDEA OTSAILAK 12

**ANOETA**
**BERTSO BAZKARIA**
**14:00.** Gipuzkoako Herriartekoko kanporaketa jokatuko da, 26+ (Tolosaldea) eta Debagoienaren artean, Kuku elkartean.
**17:00.** Bazkalosteko bertso saioa nahi duena bertaratu daiteke, doan.

**AMASA-VILLABONA**
**ANTZERKIA**
**19:30.** *Francoren bilobari gutuna* antzerkia izango da, Gurea antzokian. Iraun beharraren gaitzak jotako komunitate batean hezurraren eta gezurraren erradiografia traumatologikoa da *Francoren bilobari gutuna*. Sarrera: 10 euro.

**TOLOSA**
**KONTZERTUA**
**11:30.** Tolosako Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak urteroko kontzertua eskainiko dute, Iurreamendi egoitzan.
**KONTZERTUA**
**20:00.** E talde estatubatuarrak kontzertua eskainiko du Bonberenean, *Thalia zedek* lanarekin. Sarrera: 8 euro.

# ASTELEHENA OTSAILAK 13

**AMEZKETA**
**KORRIKA BATZORDEA**
**19:30.** Korrika batzordeak bilera egingo du kultur etxeko areto nagusian.

**ANOETA**
**DOKUMENTALA**
**19:00.** *Xalbador, izana eta izena* dokumentala eskainiko dute Mikelasagasti auditoriumean, eta Amets Arzallus bertsolariak aurkeztuko du.

**TOLOSA**
**IRAKURKETA KLUBA**
**18:30.** Jasone Osororen *12tan bermuta* liburua izango da jorratzeko aukeratua. Euskaraz izango da, eta dinamizatzaile lanak Xabier Mendigurenek egingo ditu, Udal liburutegian.

# ZINEMA

**COMANCHERIA**
Larunbata (19:30 eta 22:30).
Igandea (19:30 eta 22:00).
Astelehena (20:30).
Ikuslearen eguna.
**Leidor, Tolosa.**

**ORM ELURRETAKO ERRESUMAN**
Igandea (17:00). Haur zinema.
**Leidor, Tolosa.**

# EGONGELA IBILTARIA

**EMAUS**
Emaus fundazioaren egongela ibiltaria igandea bitartean egongo da. Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen barruan kokatzen da, eta bi edukiontzi erraldoi dira, denda, egongela eta ikasgela moduan. 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era egongo da.
**Alondegia plaza. Tolosa.**

# ERABAKI FEST

**11:00.** Bizikleta martxa. Eskualdeko bost adar nagusietatik Tolosara: Larraul, Berastegi, Orexa, Baliarrain eta Bidania-Goiatz. (Bizikletak zaintzapean uzteko aukera kultur etxean).
**13:15.** Ekitaldia: Martxoaren 19ko galderaren aurkezpena eta prozesuaren azken txanparen iragarpena egingo da Tolosako Alondegian. *Erabakitzera goazela* ospatzeko jaiari hasiera emango zaio.
**14:00.** Herri bazkari erraldoia Alondegia plazan, bertsolariek eta trikitilariek girotuta. Estalpean eta berogailuarekin.
**15:00-21:00.** Erabakitzera goazela ospatzeko musikaz eta dantzaz jantziko dira, Alondegia plazan. Musika DJ Bull-en eskutik, eta txosna zabalik.
*Umeentzako puzgarriak egongo dira.

## Non habil, ze larretan

HARITUZ-EKO KIDEA

*Ari naizela ari naizela*
*hor ikusi det txirrita*
*eta zein ez da harrituko gaur*
*gizon hori ikusta*
*dudarik gabe egiña dio*
*andregaiari bisita...*
*Oso dotore ibiliko da*
*bi alkandora jantzita.*

*Aupa Imanol!*

**Doinua**

*Ari naizela ari naizela*



# *II. Kuleroak*

Lentzeria beltza du. Puntilladuna. Ia zilborra tapatzen dio. Gurasoak pozik izango ditu, gerribuelta ondo babestua baitu. Goxo. Ipur masailak, ordea, bistan. Hori ez dute horren gustukoa izango: ipurdia bistan, agerian. Agerikoa da ilea kendu duela; ondo kendu, gainera. Ipur masailen arteko arrakalan ere ez du bilorik.

Pentsatu dut eranzteko asmotan jantzi dituela parpailadun kuleroak. Badaezpada, nor-nork kendu behar badizkio; edo nor-noren aurrean biluzi behar badu, zer gerta ere. Eta ilea ere intentzio horrekin kendu duela pentsatzen dut, gaua izara artean biluzik eta argiak itzalita, ezer ikusten ez baina ukituaren ukituz asko imajinatzeko balentrian bukatzen badu edo. Kulero fin-finak jantzi eranzteko eta ileak kendu iluntasunean ezkutatzeko.

**OLATZ ARTOLA APEZTEGIA**
KAZETARIA ETA BIDEOGILEA

Medikuarenera joatearen pareko. Gripeak jota zaudela, dutxako ur beroaren azpian jartzea esfortzu neurrigabea denean, azpiko arroparik txukunena aukeratzera behartuta sentitzen zara, gazteagoa zinela amak estreinakoz janzteko baten bat zenuela gogorarazten zizula akordatzen duzunean.

Jantzi-erantzi berriena jarri, alta, medikuak barruko arropari jaramonik ez egiteko.

Ni ohartzerako jaso ditu belaunetaraino jaitsita zituen kuleroak.

- Aio lehor batekin agurtu da.

- Agur hotz batekin erantzun diot, konturatu bainaiz konturatu gabe X-ek ez begiratzeko eskatu eta ni berari begira-begira nengoela.

Begira, ezer ikusi gabe, ordea; buruan medikuarenera azkenekoz joan nintzenean jantzi nituen galtzerdi zulatuak baineuzkan.

**Pentsatu dut eranzteko asmotan jantzi dituela parpailadun kuleroak. Badaezpada, nor-nork kendu behar badizkio; edo nor-noren aurrean biluzi behar badu, zer gerta ere**

KOMIKIA GORKA SALABERRIA

# *Ez? Sagardotegian bai!*

Lagun artean izan genuen, duela ez gehiegi, halako krakateko bat. Mezetara joen behar izaten dugun aldi arraro horietako batean ez genuen ba, Albizturren, Albizturko elizan bertan, apaiz beltz bat ikusi? Ez misiotan Afrika aldean eguzkiak txigortu eta bueltan tenpluko prexkora etorritakoren bat, ez.

Bene-benetako beltza. Euskaraz gainera. Sekula halakorik! Kontua da, egoera transgresore hartan, mezarik ere entzun ezinik egon ginela. Bistan da elizan egoteko trebetasuna galdu dugula.

**HARITZ AZURMENDI**
IRAKURLEA

Eskerrak, Glaukomakoek dioten gisan, egun Facebook-en bidez ematen diren mezak eta ez garen gure dosirik gabe geratzen. Han ateratzen zaizkizu, nahi ezta ere, Podemosekoen azken protesta iraultzailea, Errauskailuaren aurkakoen edo Gure Eskuren enegarren bideoa, edozer. Halaxe jaso nuen bigarren krakatekoa (ez dugu sustotarako ere egiten). Emma Garcia, *mujombresekoa*, Legorretara zetorrela sagardotegi denboraldia irekitzera. Hor, atento bainengoen, segituan ulertu nuen meza.

Ulertu nuen modernizatu egin garela. Ulertu nuen sagardotegian jada ez dela Varon Dandy usaina parrillako txuletarekin nahasten, korteju komentario astakirtenen artean. Ulertu nuen findu egin garela eta, orain, «ez matxistak eta ez feministak» diren tronisten gortesauak gonbidatzen ditugula, berdin-berdin direlako goierritar peto-petoak, nahiz eta legorretar gehienei ezingo dien euren hizkuntzan hitz egin. Ulertu nuen inork ikusten ez (omen) duen *telezaborra* eta ergelkeria banderatzat dituen aurkezlea ekartzeko prest gaudela, horrek jendea ekarriko badu.

Ulertu nuen, baita ere, bigarren krakatekoak lehenak baina gutxiago astindu gintuenez, lanak izango genituzkeela afalostean ETB1 ikusten duten horiei kargu hartzen kontraesanean erori gabe. Edo ezingo diogula Orbelan aurkezleari ezer aurpegiratu bere programarengatik, lotsagorritu gabe. Baina tira, Ttun Ttun Brigadek esaten du (entzun, entzun, Youtuben!) sagardotegian dena libre dela. GTG 3x2 telebistan? EZ! Emma Garcia sagardotegian bai! Horrelaxe gara, ba.

**Ulertu nuen, baita ere, bigarren krakatekoak lehenak baina gutxiago astindu gintuenez, lanak izango genituzkeela afalostean ETB1 ikusten duten horiei kargu hartzen kontraesanean erori gabe. Edo ezingo diogula Orbelan aurkezleari ezer aurpegiratu bere programarengatik, lotsagorritu gabe**

# EGURALDIA

**OSTIRALA**

Oso eguraldi polita. Hego haizea ibiliko denez tenperaturari dagokionez oso eguraldi atsegina izango da, 13-14 gradurekin. Zerua berriz zertxobait zikinago agertuko da. Egunaren erdiko orduetan ostarte zabalak eta eguzkiaz gozatzeko aukera izango dugu, baina eguna bukatzerako zikindu egingo da.

**IKER IBARLUZEA**
EGURALDI MUTILA

**LARUNBATA**

Egoera zertxobait nahastu egingo da. Haizeak lehenengo orduetan hego ukitua hartuko du, eta goiza epela izango da. Erdi mailako geruzetan aire hotz pixka bat sartuko da, baina tenperaturak 11-12-13 gradu harrapatuko ditu. Zerua zikin eta nahiko estalita agertuko zaigu, eta eguerditik aurrera balieke euri pixka bat egitea. Ez du askorik egingo, eta zaparradarik handienak egunaren bukaeran botako ditu. Alde horretatik nahiko eguraldi lasaia izango da. Egunaren bukaerarako tenperaturak jaitsi egingo dira eta elurra 1000 metroren bueltan ibiliko da.

**IGANDEA**

Hego ekialdeko haizea izango da protagonista. Oso zakar joko du, batez ere egunaren amaieran eta baliteke 100 kilometro orduko abiada harrapatzea. Eguna zerua estalita esnatuko da, eta zaparrada txikiren bat edo beste bota dezake. Egunaren erdi aldean ostarteak ireki eta lasaiagoa izango da. Tenperatura:14-15 gradu.

**ASTELEHENA**

Itxura nahasia dakar orokorrean. Giro lasai samarra nahiz eta zer edo zer busti dezakeen.

| | | | |
|---|---|---|---|
| OSTIRALA | 10 | IGANDEA | 12 |
| LARUNBATA | 11 | ASTELEHENA | 13 |



**IRAGARKI LABURRAK**

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu
943 65 56 95
telefono zenbakira, idatzi
ataria@ataria.eus
helbidera edo pasa
ATARIA-ko bulegotik.

# FARMAZIAK

**OTSAILAK 10, OSTIRALA**
TOLOSA
**Egunekoa.** Bronte, C.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

**OTSAILAK 11, LARUNBATA**
IBARRA
**Egunekoa.** Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

**OTSAILAK 12, IGANDEA**
TOLOSA
**Egunekoa.** Bronte, C.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

**OTSAILAK 13, ASTELEHENA**
IBARRA
**Egunekoa.** Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

# ATARIA IRRATIA

**OSTIRALA**
**09:00.** **Pasahitza** magazina.
Iker Ibarluzearen eskutik eguraldia,
Tolosaldea Garatzen,
Tolosako azokari eskainitako tartea, eta lehiaketaren atala (deitu 943 698 038ra edo whatsapp mezua bidali 687 410 033ra 10:45etik 10:55era), aste honetako saria *Kuadernoa zuri* antzezlanerako sarrera parea, Leidorrera joateko.
**11:00.** **Hamaiketakoa.** Gure eskualdeari begirada: Gaurkoan, Anoetaldea eta Villabona–Aiztondoko albisteak.
**12:00.** **Entzuteko Jaioak** musika saioa.
**16:00.** **Zebrabidea.**
**18:00.** Goizeko saioak utzitako onena.

**LARUNBATA**
**10:00.** Asteak utzitako onena.
**12:00.** **Hauspo artean.** Ander Malbadik gidatutako trikiti saioan, Xabier Etxaniz *Aizpurutxo* izango du gonbidatua..
**Ondoren.** Trikitia.
**14:00.** **(H)ari naizela.**
Imanol Artolak gidatutako bertso saioan, Gipuzkoako Herriarteko txapelketari egingo dio errepasoa.
**16:00.** **Entzuteko Jaioak.**
**18:00.** **Entzuteko Jaioak.**

**IGANDEA**
**10:00.** Asteak utzitako onena.
**16:00.** **Entzuteko Jaioak.**
**18:00.** **Entzuteko Jaioak.**

**ASTELEHENA**
**09:00.** **Pasahitza** magazina. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, asteburuak utzitakoaren errepasoa, Iñaki Zubeldia *Kale Kantoitik*, eta lehiaketaren atala. Aste honetako saria, Kabi Alai txarangaren 75. urteurreneko diskoa.
**11:00.** **Hamaiketakoa.** Gure eskualdeari asteroko begirada. Gaurkoan, Tolosa.
**12:00.** **Entzuteko Jaioak** musika saioa.
**16:00.** **Zebrabidea.**
**18:00.** Goizeko saioek utzitako onena.
**20:00.** **Hauspo artean.** Ander Malbadik gidatutako trikiti saioa.

**107.6 fm**
**www.ataria.eus**

# ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

***Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez***

**BERRIA Taldeak Giza Baliabideetako teknikaria behar du.**

(Erref 2017-GB)

**Langileen administrazioaz arduratuko den pertsona baten bila gabiltza.**

Zeregin nagusiak hauek izango dira: Gizarte Segurantzako mugimenduak (RED Sistema), lan kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, zergak (111, 190), lan arloko aholkularitza.

*Eskatzen da:*

- Langileen administrazioari loturiko unibertsitate mailako ikasketak edo baliokideak diren ezagutzak izatea.
- Zehaztutako funtzioetan gutxienez urte beteko esperientzia izatea.
- RED Sistema, Siltra, Contrata, Delta eta nomina programak ezagutzea.
- Ohiko ofimatika programak ezagutzea (Word, Excel, Access).
- Giza Baliabideen bestelako arloetako ezagutza baloratuko da (aukeraketak prestakuntza, prebentzioa).
- EGA edo baliokidea den euskara maila

*Eskaintzen da:*

- Aldi baterako ordezkapeneko lan kontratua (gutxienez, 7 hilabeteko iraupena).
- Lanaldi osoa.
- Lantokia Andoainen.

Interesa duenak bidali curriculuma **gizabaliabideak@berriataldea.net** helbide elektronikora, otsailaren 13a baino lehen, erreferentzia zehaztuta.

## ataria k KOMERTZIALA BEHAR DU HARPIDETZA KANPAINARAKO

**ESKATZEN DA**

- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

**ESKAINTZEN DA**

- Hiru hilabeterako lan-hitzarmena, luzagarria.
- Soldata finkoa gehi komisioa.

Tolosaldeko ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm
San Esteban 20, 20400 TOLOSA
943-65 56 95 · tkt@ataria.eus

**Interesa duenak Curriculum Vitae zehatza bidali** Tolosaldeko Atariara (San Esteban, 20. 20400 Tolosa) edo tkt@ataria.eus posta elektronikora, **otsailaren 10a baino lehen.**

# IKASTOLA EREDUA

ikastolenelkartea

# Hezkuntza eraldatzen

matrikulazio epea urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

ANOETAKO HERRI IKASTOLA · Arrurako Ikastola · Laskorain Ikastola · ZUBIMUSU IKASTOLA · Inmakulada TOLOSAKO LANBIDE IKASTOLA

www.ikastola.eus